**KIROLA:** ARRASATE-ARETXABALETA DERBIA XAKEAN ZAPATUAN /10


# Goienkaria

EGUBAKOITZA • 2005eko otsailaren 18a • V. urtea • 188. zenbakia • DOAN BANATZEKOA





**BARRUAN, ZURE HERRIKO ALDIZKARIA**






**BERGARA**
**Agorrosingo barruko igerileku berriak, 2006ko ekaineraka /6**

**MARIANO CORTES** / KUTXA ZEHARO
*"Gizartetik baztertuak izateko arriskua dutenei lana bilatzeko zerbitzua da Kutxa Zeharo"* /7

**Goienka2a**
**Brasilgo capoeira artea irakasten dihardute ibarrean**




GORKA ETXABE

## Urteko bigarren elurtea, arinagoa

Orain dela hiru astekoa baino arinagoa izan da oraingo elurtea. Orduan, ibarreko bazter guztiak utzi zituen zuri-zuri eta egunetan iraun zuen denboraleak. Oraingo astean, ordea, eguaztenean jo zuen gogorren, baina ez orduan bezain gogor. Elurteak arazoak sortu ditu, hala ere, errepideetan; mendateetan, batik bat. Eguazten goizean, hauxe zen egoera: Gatzaga, Kanpantzar eta Deskarga mendateak itxita zeuden; Arlaban autobus eta kamioiendako itxita zegoen eta kateak behar zituzten autoek; Elgetan, kateak behar zituzten auto eta kamioiek; eta, azkenik, Udana zabalik zegoen. Elurra kentzeko makinak jo eta ke ibili ziren lanean, eta berehala konpondu zuten arazoa.

**ASTEKO GAIA:** GOITB-KO MAHAI-INGURUA, ORRIOTAN

# Itunaren alde eta aurkako argumentuak

Europako Itunaren gainean bozkatuko dugu etzi, domeka, eta Itun horretaz aldeko eta aurkako argumentuak eman zituzten joan den martitzenean, GOITBn. Izan ere, EAJ, MCC, ELA eta Ezezkoaren Aldeko Ekimeneko ordezkari banak mahai-ingurua egin zuten. Horren laburpena jaso du GOIENKARIAk.

Hizlariek gizabanakoaren eta Euskal Herriaren ikuspuntutik aztertu zuten Konstituzioa. **/2-3**




**EZEZKOAREN ALDEKOAK, BATERA** Europako Itunaren gaineko erreferendumean ezetzaren alde agertu diren ibarreko indar politiko eta sindikatuak batera agertu dira prentsaren aurrean, domekan ezezko botoa eskatzeko. **/5**








**Makinak alokatu eta saltzen ditugu**
Eraikuntzarako eta obra publikorako

**ALKIDEBA**
Soluzioak errentan.

Maltzaga bidea – 20590 Soraluze
Tel.: 943 75 15 54 . Faxa: 943 75 00 31

Goitondo industrialdea, 3. pab. 11-2 partzela, 48269 Mallabia – Bizkaia
Tel.: 943 17 13 62 . Faxa: 943 17 14 56




**Erreferenduma 'Asteleheneko Goienkaria'-n**

Domekako erreferenduraren emaitzen berri izango duzue *Asteleheneko Goienkaria*-n, eguneko gorabehera, analisi eta iritziekin.


**DEBAGOIENA**/4-5 • **HERRIZ HERRI**/6 • **IRITZIA**/8-9 • **KIROLA**/10 • **NON-ZER**/16-17 • **SAILKATUAK**/18 • **ESKELAK**/19 • **DENBORA-PASA**/20 • **TELEBISTA**/22

# Europako Ituna, adituen iritziz

■ Europako Itunaren gaineko mahai-ingurua izan zen GOITBn; orriotan, laburpena duzue

■ Alde azaldu ziren EAJ eta MCCk, eta aurka, ELA eta Ezezkoaren Aldeko Ekimena




LEIRE KORTABARRIA

Etzi, domeka, hauteskunde-mahaietara deituta gaude ia 54.000 debagoiendar, Estatuak deitu duen Europako Itunaren gaineko erreferendumera. Itunaren gainean hainbat eztabaida-gune zabaldu dira gurean. Horietako bat izan zen joan den martitzenean, otsailaren 15ean, GOITBn lau lagunek egin zuten mahai-ingurua. Baiezkoa zein ezezkoa defenditzeko eman zituzten argumentu nagusiak irakurtzeko aukera duzue segidan.

**IMANOL BOLINAGA**
EAJ ALDERDIKO SENATARI OHIA

## "Ez da hitzarmen ona, baina orain arte egin direnen artean onena da"

Imanol Bolinagak aldeko botoa eskatzen du. Izan ere, bere esanetan, "ez da hitzarmen ona, baina orain arte Europan egin direnen artean onena da", eta Euskal Herriarendako ezer hoberik "ezin zitekeen espero".

Bolinagaren ustez, Konstituzio horrek aurrerapauso batzuk dakartza: "Europako erakundeak indartu eta estatuetako erakundeen boterea mozten du; Legebiltzarrari eskumen gehiago ematen dizkio; eta Oinarrizko Giza Eskubideen Gutuna onartzen du". Senatari eta Bruselan Gipuzkoaren ordezkari izandakoak azpimarratu zuen horrek guztiak "demokrazia gehiago, kultura eta hizkuntza pluraltasuna eta giza eskubideen eta gutxiengoen babesa" dakartzala.

**EUSKAL HERRIAZ, BAIKOR**

Euskal Herriak Europan izan dezakeen etorkizunaz baikor azaldu zen Bolinaga. Itunak Euskal Herriaren nortasuna ukatzen duela diotenei erantzun zien, zera esanez: "Euskal Herriarendako ez dago eragozpen handirik Europan, Europak errekonozitzen duelako herrien autonomia. Arazoak daude Espainian eta Frantzian, eta horiek konpontzeko gai bagara, Europan ez dugu inolako oztoporik errekonozimendua lortzeko". Horren ildotik, estatuen lurraldetasuna babesten duen Itunaren artikulua azaldu zuen, eta esan zuen estatu bat barne prozesu demokratiko baten bidez hainbat zatitan banatzeari Europako Itunak ez diola "inongo oztoporik" ipintzen.

Europako Ituna "ahula" eta ez behar bezain ona dela behin eta berriro errepikatu zuen, eta erabaki prozesuari egotzi zion ahulezia hori: "Hitzarmena onartu behar izan da aho batez, eta horrek dakar bidean ideia asko geratzen direla. Edozelan ere, Konstituzio hau ez da ona, baina ez da hain txarra ere". Itxaropentsu azaldu zen EAJko kidea etorkizunari begira: "Europa bateratzeko beste 20 urte behar-ko dira, eta konstituzio gehiago etorriko dira honakoa hobetuko dutenak".

**ADRIAN ZELAIA**
MCC TALDEKO PARTAIDEA

## "Europa federal bateranzko joera dago, eta horrek aurrera egingo du"

MCCko European Corporative Group taldeko kide da Adrian Zelaia. Hark begi onez ikusten du Ituna, mugak dituela onartzen badu ere; izan ere, bere ustez, "Konstituzioarekin edo Konstituziorik gabe", Europa bide jakin batetik doa: "Bultzada gogorra dago Europa federalerantz, eta bultzada hori motz geratzen da Itun horrekin, baina aurrera egingo du". Frantzia eta Alemania ei dira federalismo horren aldekoenak.

Zelaiaren iritziz, praktikan dagoen norabide horretarako tresnak ere ematen ditu Itunak: elkarlan iraunkorra eta bi abiadurako Europa. Azalpen gehiago ere eman zuen: "Arlo jakin baten aukera zabaltzen bada, nahi duten estatuek parte hartu ahal izango dute edo ez. Adibidez, euroa horrela sortu zen, eta baita Europako

Batasuneko beste zenbait aldaketa ere”. Zelaiak bide horretatik ikusten du etorkizuna, eta aurrerapausoak “Konstituzioa onartu eta 10 urtean” etorriko direla aurreikusten du.

**MOTELAK, BAINA AURRERAPAUSOAK**

Itunaren izaera “batez ere politikoa” dela eta helburu funtsezkoena “Europar Batasunaren egiturak hobetzea” dela azaldu zuen Adrian Zelaiak. Hortik datoz, Zelaiaren esanetan, Itunaren abantaila eta baita muga batzuk ere: “Aurrerapausoa da aurreko egoeraren aldean; ikuspegi demokratikoaren eta eraginkortasunaren aldetik, aurrerapausoak dira, motelak izan arren; izan ere, estatuen Europari eusten zaio”.

Arlo politikoan nahiko iritzi baikorra badu ere Zelaiak, politika sozial eta ekonomiko ahulak ezartzen dituela ere esan zuen, eta aldaketa gutxi dakartzala gaineratu zuen. Edozelan ere, orobateko iritzia baietzaren aldekoa azaldu zuen hizlari horrek; izan ere, elkarlan iraunkorraren bidez, defentsan, zerga politikan, estrategia industrialean… hobekuntzak aurreikusten ditu Zelaiak.



GOIENA TELEBISTA

**Ezkerretik eskumara, Imanol Bolinaga (EAJ), Adrian Zelaia (MCC), Gorka Etxabe aurkezlea, Mikel Noval (ELA) eta Antxon Mendizabal (Ezezkoaren Aldeko Ekimena).**

**MIKEL NOVAL**
ELA SINDIKATUKO KIDEA

## “Itunaren funtsa ez da aldatuko, eta orain da unea ezetz esateko”

ELA sindikatuan Politika Sozialeko arduraduna da Mikel Noval, eta, batez ere, ikuspegi horretatik gaitzetsi zuen Ituna, eta baita Euskal Herriaren etorkizunaren ikuspegitik ere. Itunak Europako erakundeen arteko “botere banaketa” eta, “herrien ikuspuntutik, estatuen nagusitasuna” ezartzen dituela esan zuen.

Konstituzioa “defizit demokratikotik” sortu dela esan zuen: alegia, berau egiteko “gizarteko ordezkari askok ez dute parte hartu, ezta estaturik gabeko herriek ere”. Arlo sozialeko etorkizuna ilun margotu zuen: batetik, aurkeztu zuen Tratatua “familia politiko nagusien akordio” bezala, giza eta lan arloetan “politika neoliberalak” aplikatzen jarraitzeko. Bestetik, Itunean jasotako Oinarrizko Eskubideen Gutuna “juridikoki ondoriorik gabe” geratzen dela salatu zuen; izan ere, lan, etxebizitza, osasun… arloetako eskubideak ez dira jasotzen, eta, bestetik, estatuak ez daude eskubide horiek aplikatzera behartuta eurenak diren eskuduntzetan.

**ESTATUEN LURRALDETASUNA**

“Ez dago ezer positiborik Euskal Herriarendako”, esan zuen Mikel Novalek, eta honakoa gaineratu: “Itunean ez da jasotzen autodeterminazio eskubidea; eta, beste alde batetik, esaten da bermatzen dela estatuen politika euren lurraldetasuna defendatzeko. Horrekin planteatzen dena da, gure kasuan, Armadaren erabilpena lurraldetasun arazoren bat dagoenean”, esan zuen. Euskal Herriaren nortasunaz honakoa esan zuen: “Hizkuntza edo kultura aldetik, esaten da babesten dela Europako kultura, baina ez herrien kultura. Hori ez da euskal kultura defendatzea”.

Itunaren ildo nagusiak etorkizunean aldatzeko modurik ez dela egongo ohartarazi zuen, eta honakoa gaineratu zuen: “Galdera da: herrien eskubideak ukatzen dituen Itun batekin ados gaude, ala ez? Orain da unea ezetz esateko, Ituna ez bazaigu gustatzen”.

**ANTXON MENDIZABAL**
EZEZKOAREN ALDEKO EKIMENA

## “Itunak hil egiten gaitu euskaldunok; ez gara existitzen, ez dugu etorkizunik”

Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle eta Ezezkoaren Aldeko Ekimeneko kide Antxon Mendizabalek historiaren ikasgaia aintzat hartu zuen bere berbaldian. Hark margotu zuen ikuspegi ilunena Euskal Herriarendako: “Itunak hil egiten gaitu euskaldunok; ez gara existitzen, ez dugu etorkizunik”, kexatu zen. Mendizabalen hitzetan, ukapen hori bikoitza da; izan ere, “estatuen aho bateko erabakia behar da ezer aldatzeko; hortaz, Itunak inposatzen digu existitzerik eza, eta, bestetik, ezin dugu ezer aldatu”.

**MULTINAZIONALEN INTERESAK**

Mendizabalen esanetan, Ituna ez da benetako Konstituzioa, ez delako herritarrek egindakoa; horren ordez, esan zuenez, “Itunaren funtsa ekonomikoa da”. Haren esanetan, interes jakin batzuengatik sortu dute Ituna: “Merkatua nazioarteko bihurtu da eta nazio-estatuek erabakiak espazio zabalagoan hartu behar dituzte. Itunak multinazionalen eta finantza-kapitalaren protagonismoa finkatzen du. Europaren izaera inperialista da, eta helburua da munduko inperioan bere burua kokatzea”. Dinamika horrek eragiten ei du Euskal Herriarendako eta beste herri batzuendako egoera beltza.

Historiari begira, Itun hori “espero” zuela esan zuen; izan ere, “estatuek, finantza-kapitalak eta multinazionalek egin dute Europa hau, eta egin dute esplotaziorako eta zapalkuntzarako eskubideak aldarrikatuz”. Mendizabalen esanetan, dinamika hori berbera da Europan, AEBetan, Asian… Ondorioa da “desberdintasun eta bazterketa sozialak izugarri areagotzea”, bai gizabanakoen, baita lurraldeen artean ere.

Etorkizunari begira oso ezkor azaldu zen Antxon Mendizabal. Itun horrekin, esan zuen, “nazio menderatzaileen protagonismoa finkatuko da; dibertsitate nazionala ukatzen dutenen indarra handitu egingo da. Nazio txikiek ez dute ahalmenik izango garatzeko, eta gure garapena besteen inbertsioen luzapena izango da”.

Ezezkoa bozkatzea “Europan gune berria” zabaltzeko aukera dela esan zuen, “eskubide sozial eta politikoetan oinarrituta”, eta bukatu zuen: “Euskaldunok belarrondoko handia eman behar diogu Itun horri”.



**MAHAI-INGURUA EGIN ZUTEN HUHEZI FAKULTATEAN ERE**

**Ikasle Abertzaleek antolatuta, mahaiaren inguruan batu ziren, Europako Konstituzioaz berba egiteko, hainbat alderdi politiko eta beste erakunde batzuetako ordezkariak: hain zuzen, Ander Rodriguez (Ezker Batua-Berdeak), Mikel Irujo (EA), Mikel Noval (ELA), Jose Mari Muñoa (EAJ), Aintzane Ezenarro (Aralar), Arlet Apraiz (LAB), Antxon Mendizabal (Batasuna-Ezezkoaren Aldeko Ekimena), Igor Moreno (Zutik) eta Galder Gonzalez (Ikasle Abertzaleak) aritu ziren nor bere ikuspuntua plazaratzen. Jose Mari Muñoa EAJko kideak baiezkoaren aldekoak ordezkatu zituen oraingoan; gainerako alderdi eta taldeak ezezkoaren aldekoak dira.**

Langile okupatuentzako %100 prestakuntza finantziatuak
Informatika
Disenua
Gestioa
Hizkuntzak
Giza baliabideak
AKADEMIA BASTIDA
Info: 943 79 35 33
formacioncontinuabego@bastida.es




OIHANA ELORTZA

Amann Garraio sailburua, Gonzalez de Txabarri diputatu nagusia eta eskualdeko alkateak egon ziren tranbiaren aurkezpenean.

# Alegazioak aztertu ondoren hasiko dituzte eskualdeko tranbiaren lanak

*Arrasaten eta Bergaran erakusketak jarri dituzte, eta Aretxabaletan laster*

OIHANA ELORTZA

**Alvaro Amann Jaurlaritzako Garraio sailburuak aurkeztu du tranbiaren proiektua Arrasaten. Ez du esan lanak noiz hasiko dituzten. Alegazioak aurkezteko epea luzatu egin dute: herritarrendako, martxoaren 15a da azken eguna.**

Arrasateko Monterron jauregian aurkeztu zuen Alvaro Amann Garraio sailburuak Debagoiena lotuko duen tranbiaren proiektua, astelehenean. Eskualdeko udaletxeetan badaude ikusgai tranbiaren planoak, baina, jendeari argiago erakusteko asmoz, planoen erakusketa inauguratu zuen Monterronen bertan. Erakusketa horretan, tranbiak Arrasaten izango duen ibilbidea eta izango dituen geltokiak ikus daitezke, eta Aste Santu arte egongo da ikusgai. Bergaran gaur, egubakoitza, jarri dute udaletxean eta Aretxabaletan ere jarriko dute, eguna oraindik zehazteke duten arren.

**GARRAIO PROIEKTU BAKARRA**

Monterronen egin zuten aurkezpenean, Alvaro Amann Garraio Sailburuaren ondoan izan ziren Gipuzkoako diputatu nagusia, Joxe Joan Gonzalez de Txabarri, eta baita eskualdeko alkateak ere.

Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta zeharkatuko ditu tranbiaren lehen faseak, baina, hiru herri horietako alkateez gain, Oñati, Eskoriatza, Antzuola eta Aramaioko alkateak ere egon ziren aurkezpen ekitaldian. Izan ere, bigarren fasean Eskoriatzara eta Oñatira helduko da tranbia, eta Antzuola, Aramaio, Elgeta eta Leintz Gatzaga autobusen bitartez lotuko dituzte tranbiara.

*“Tranbiarena eskualdeko proiektua da, bakarra herri guztiendako”*

Alvaro Amannek esan zuen bezala, “tranbiarena eskualdeko proiektua da, eta, herrietan banatuta dagoen arren, proiektu bakarra da herri guztiendako”.

**DATAK ETA EZAUGARRIAK**

Amann Garraio sailburuak esan zuen oraindik ez dutela zehaztu lanak noiz hasiko dituzten. Proiektuari aurkeztuko dizkioten alegazioak aztertu eta adostasuna lortu ondoren hasiko dituztela esan zuen, baina ez zuen datarik jarri. Soilik esan zuen lehen faseko lanek 36 hilabete iraungo dutela.Alegazioak aurkezteko epea, gainera, hilabetez luzatu da, udalek eskatuta. Beraz, herritarrendako martxoaren 15a izango da alegazioak aurkezteko azken eguna, eta hilabete gehiago izango dute udalek. Oraingoz, Bergarako eta Aretxabaletako udalek badute alegazioak aurkezteko asmoa. Bergara Aurrerak ere aurkeztuko du.

Bergaratik Aretxabaletara 19 geltoki izango ditu tranbiak eta 33 minutu pasatxo egingo ditu.

# Hiztegia, liburua eta CDa opari, jaioberriak dituztenendako

*Mankomunitatearen ‘Zorionak’ programari esker*

GOIENKARIA

**Hiztegi, liburuxka eta CD bana emango zaizkie aurrerantzean jaioberriak dituzten Debagoieneko familiei. Ibarreko udaletako euskara zerbitzuek eta Mankomunitateak elkarrekin abiatu duten *Zorionak* programari esker jasoko dute oparia.**

Astelehenean aurkeztu zuten Eskoriatzako udaletxean *Zorionak* programa. Aurkezpenean, ibarreko hainbat udaletako euskara teknikariak eta Iñigo Iñurrategi Mankomunitateko Euskara batzordeburuak hartu zuten parte.

Programa horren aurkezpen ekitaldian azpimarratu zuten euskararen transmisioaren garrantzia. “Funtsezkoa da jaiotzen direnetik hizkuntza barneratzea, urrats klabea da”, esan zuten. Bestalde, gurasoek haurrei hitz egiten dietenean erdarakadak saihesteko helburua ere izan dute ekimena bultzatzerakoan.

Hainbat familia motak jasoko dute oparia: familia euskaldunek; euskaldun eta erdaldunez osatutakoek eta erdara bakarrik erabiltzen duten gurasoek sortutakoek. Guztiekin helburua berbera: euskararen erabilera bultzatzea.

**HIRU PRODUKTU**

Hiru produktuk osatzen dute aurkeztu berri duten programan jasotzen den paketea. Batetik, 20 abestiz osatutako diskoa, 0-3 urte bitartekoendakoa. Umeendako euskarazko abesti ezagunez osatuta dago CDa: *Pintto-Pintto, John Brown, Paristik datorren, Han zeuden, Astoa ikusi nuen…* Bestalde, triptiko antzeko bat ere badakar, umeekin erabiltzeko berbak jasotzen dituena (apapa joan, apatxi egin…) eta eskuman, ohiko akatsen zuzenketak. Azkenik, liburuxka bat ere badakar gurasoendako hainbat aholku jasotzen dituena.

**BI MILA ALE**

Bi mila ale atera dituzte eta hilabete bakoitzean jaiotakoen zerrenda hartu eta postaz etxera bidaliko zaie familia berriei. Hala ere, udal bakoitzak bere erara egingo du banaketa.

*Diskoak umeendako 20 abesti ezagun batzen ditu: ‘Pintto-Pintto’, ‘Paristik datorren’...*



GOIENKARIA

Umeak eduki berri dituztenendako opari ederra eskaintzen du *Zorionak* programak.

LOIOLA KLINIKA

BEGIETAKO KLINIKA
Begietako mikrokirurgia:
Kataratak: Miopia / Hipermetropia.
Bitreo-erretinako gaixotasuna: Erretina-askatzea / Laser tratamendua. Termoterapia / Makulako gaixotasunak / Erretinopatia diabetiko konplikatua

Manuel Salaberria *Mediku oftalmologoa*

AZPEITIA / KLINIKA: Loiola auzoa 25 C. T: 943 15 17 52. F: 943 15 18 91
DONOSTIA / KONTSULTA: Zubieta 11-1. T: 943 44 46 79

# 2010ean helduko da Bergarara Beasaindik Durangorako saihesbidea

*Zumarragatik Bergararako tarteak 9,7 kilometro eta bi tunel izango ditu*

OIHANA ELORTZA

**Ormaiztegitik Zumarragara doan zatia apirilean zabalduko dute. 2006an, Zumarragatik Bergarara bitartekoa egiten hasiko dira eta 2010erako bukatuko dutela uste dute. Zati horrek 150 milioi euroko aurrekontua du.**


OIHANA ELORTZA
**Saihesbidearen maketa eta planoak ikusi zituen Gonzalez Txabarrik.**

Udaberrian, apirilean, zabalduko dute Ormaiztegitik Zumarragarako bide tartea eta datorren urtean, 2006an, hasiko dituzte Zumarraga eta Bergara bitarteko lanak. 2010erako Beasaindik Bergararako saihesbidea bukatuta egongo dela esan dute Gipuzkoako Diputazioko arduradunek. Atzo, eguena, azaldu zituzten Zumarragako udaletxean Beasain-Durango saihesbideko trazatuak eta epeak. Hantxe bildu ziren Joxe Joan Gonzalez Txabarri diputatu nagusia; Zumarraga, Urretxu, Ezkio eta Legazpiko alkateak; Urolako Mankomunitateko presidentea eta diputazioko hainbat ordezkari.

**9,7 KILOMETRO ETA BI TUNEL**

Zumarragatik Bergarara bitarteko errepide berriak 9,7 kilometro izango ditu guztira eta tartean bi tunel egingo dituzte. Tuneletako bat Zumarragan egingo dute, 900 metrokoa. Bigarren tunela Deskarga mendatean egingo dute, eta hark 620 metro izango dituela esan zuten. Bi tunelez gain, sei zubi-bide ere egingo dituzte: Deskargatik Antzuolara bitartean, Ipurrietekakoa eta Antiguakoa, biak 250 metro baino luzeagokoak; Antzuolatik Bergarara bitartean, Lapatzakoa, Antzuolakoa eta Igeribarrerrotakoa.

*Zumarragatik Bergarara bitarteko lanak 2006an hasiko dituzte eta 2010ean bukatu*

**LAU ERRAILEKO AUTOBIDEA**

Aurkezpenean esan bezala, Beasain-Durango saihesbideak lau errail izango ditu hasieratik bukaeraraino, bi noranzko bakoitzerako. Egin dituzten kalkuluen arabera, gaur egun 19.000 ibilgailu dabiltza egunero Ormaiztegi eta Zumarraga artean. Deskargako mendatetik 9.200 pasatzen ei dira egunean, horietatik %22, ibilgailu astunak. Saihesbide berria egindakoan, 200 ibilgailu baino ez dira pasako Deskargatik egunean. Zumarragatik Bergararako tarteak 150 milioi euroko aurrekontua du.

# 18/98+... herri ekimenak bere izaera zabala aldarrikatu du

*Hurrengo asteotarako ekimenen berri eman du*

ENEKO AZKARATE

**Debagoieneko 18/98 eta Gehiago herri ekimenak bere izaera zabala eta herrikoia aldarrikatu eta hurrengo asteotarako ekimenen berri eman du.**

Orain dela aste bi aurkeztu zuten Bergaran, Debagoieneko 18/98 eta Gehiago ekimena. 18/98 sumario erraldoian inputatuta dauden 220 lagunei —horietatik zazpi, ibarrekoak— babesa eskaintzeko plataforma da hori, eta ibarreko hainbat pertsona ezagunek osatzen dute. Oraingo martitzenean, bestalde, prentsaurrekoa eskaini zuten Bergaran Plataformako kideek, haien "izaera zabala eta herritarra aldarrikatzeko" eta gaiaren gaineko informazioa zabaltzeko herritarrei.

Plataformako kideek jakinarazi zituzten hurrengo asteotarako antolatu dituzten ekimenak eta herritarrak gonbidatu zituzten ekimenotan parte hartzera. Oraingo zapatuan, hilak 19, 11:00etan, Donostiako Kursaalen egingo dute elkarretaratze handi bat, eta sumario erraldoi honetan inputatuta daudenak eta beste hainbat kide bertan izango dira. Bestalde, hurrengo eguenean, otsailaren 24an, elkarretaratze handi bana egin nahi dituzte Arrasate eta Bergarako plaza nagusietan, 19:30ean. Azkenik, otsailaren 26rako, manifestazio bat iragarri dute Bilbon, 17:30ean. "Ideia guztiak garatzeko eskubidea murriztu ez dadin eta euskaldun ororen eskubideak murriztu ez daitezen, gizarteak parte hartzea eskatzen dugu" esan zuten.

## EUROPAKO ITUNA ERREFERENDUMA 2005

### Elgetako Udalbatza, ezetzaren alde

Elgetako Udalak martitzenean egin zuen udalbatzarrean, Europako Konstituzioaren aurka dagoela onartu zuen. Aralarko hiru zinegotziek eta EAko Iñaki Ugarteburuk erabaki horren alde bozkatu zuten eta EAJko hiru zinegotziek, ostera, aurka. Bestalde, Elgetako Aralarrek, Auzolanian plataformak eta beste hainbat eragilek testu bateratua argitaratu dute ezetzaren alde.

### Aretxabaletako Udalean eztabaidarik ez

Aretxabaletako Aralarrek salatu du Arritxu Oliden alkateak (EAJ-EA) atzera bota duela udalbatzak Europako Konstituzioari buruzko ezohiko osoko bilkura egiteko eskaria. Ezker Batuko zinegotziak eta Aralarko hiru zinegotziek egin zuten eskaria, hilaren 9an. Eskaria atzera botatzeko, "Udalari ez dagozkion gaietan injerentzia egitea izango litzatekeela arrazoitu zuen alkateak" Aralarren esanetan.

### Ezetzaren aldekoak, batera

Debagoieneko EA, Aralar, Ezker Batua, Batasuna, Zutik, Herri Plataformak, ELA, LAB, ESK, STEE-EILAS eta EHNE batera agertu dira Europako Itunaren aurka bozkatzea eskatzerakoan, arrazoi hauengatik, besteak beste: Estaturik gabeko nazioak aintzat ez hartu eta hauen autodeterminazio eskubidea ukatzen duelako; Estatuei aukera emango dielako Itunak hiritarren eskubideak murrizteko, kultura eta hizkuntza aniztasuna aintzat ez dituelako hartzen, lan eskubideak ez dituelako bermatzen, ezta etxebizitza, osasun eta pentsioak jasotzeko eskubideak ere; etorkinak bigarren mailako hiritartzat hartzen dituelako eta sexu berdintasuna ez duelako bermatzen.

# Txandakako itxialdiekin segitzen dute Debagoieneko preso politikoek

GOIENKARIA

Debagoieneko preso politikoek txandakako itxialdiekin segitzen dute. Bosgarren txanda egiten dihardute joan zen otsailaren 13a ezkero. Honako hauek dira: Miguel Gaztelu eta Mikel Zubimendi bergararrak, eta Josu Arkauz arrasatearra. Seigarren txandan, otsailaren 23tik martxoaren 5era artekoan, beste honako hauek egongo dira zigor-gelan, kanpora ateratzeke: Alberto Plazaola eta Xabier Ugarte oñatiarrak, Paulo Elkoro bergararra, Kepa Urra aretxabaletarra, Jon Agirre aramaioarra eta Saioa Alzua, Amaia Arrieta eta Premin Sanpedro arrasatearrak.

Itxialdi hauekin presoek aldarrikatu nahi dituzte osasun, komunikazio, hizkuntza eta hezkuntza eskubideak, eta baita Euskal Herrira ekartzeko eskubidea, antolatzekoa, beste eragile batzuekin harremanak izatekoa eta gatazka politikoaren konponbiderako eztabaidatan parte hartzeko eskubidea ere.

GIARTZU DERMOESTETIKA ZENTROA
Espainiako Azaleko Estetika Konpontzailearen Taldeko kide
Azalaren zahartzearen kontrol zientifikoaren unitatea.
Boni Laskurain 3 BERGARA
943 76 35 71

Laser bidezko depilazioa
Ile mota bakoitzarentzako laser bat.
Ile kolore bakoitzarentzako laser bat.

- Neodimio Yag laserra
- Alexandrita laserra
- Fotodepilazioa

Ordua eskatuta:
diagnostikoa, proba doan eta aurrekontua.



HEMEN BAKARRIK IKUSTEN DA ONENA.
Hemen bakarrik abona zaitezke Digital+era baldintza hauekin:
3 HILABETE ERDI PREZIOAN | IZENEMATE KUOTA 45 € | Antena eta instalazioa DOAN
Zeren zain zaude. Egin zaitez DIGITAL+en abonatu Milar Elkoron. Olarte kalea 1 (Arrasate)
DIGITAL+

Laser bidezko depilazioa
Konfiantzazkoa eta segurua.
Guztiz Gedeer
Estetika Zentroa
Kale Barria 29, behea
(Orbea etxea, parke aldetik)
OÑATI.
943 78 01 46

ANTZUOLA

## Herriari bira emango dion mendi irteera antolatu dute domekarako

Domekarako mendi irteera antolatu du Arrolak. Antzuola eta inguruko mendizaleendako lau eta bost ordu bitarteko ibilaldia izango da. Parte hartzeko ez dago izena eman beharrik, nahikoa da 08:30ean plazan agertuta. Zorrosko ingurutik Trukarrietako iturrira joan ondoren, Landarraiztik Arrolako gailurrera igo eta Sokomendi inguruko pagadietan barrena Altzetara iritsi eta Loieta eta Urkuillutik plazara joango dira. Datorren domekan ere izango da ibilaldia, Irimo ingurura. /I.A.

ARAMAIO

## Maider Undak borroka libreko txapela defendatuko du Gijonen

Gaurtik, barikua, etzira arte, Espainiako Txapelketa jokatuko dute Gijonen borroka libreko kirolari emakumeek. Tartean, Maider Unda oletarra ere izango da. Asteburuko txapelketa irabaztea lortzen badu, zazpigarren txapela ekarriko du Aramaiora.

Bi aurkari izango ditu aurrez aurre: madrildar eta kanariar bana. Gasteizko entrenatzaile Luis Crespok lagunduta, gogor entrenatzen ibili dela kontatu digu, eta, sakro iliakoarekin arazoak dituen arren, ez duela uste bestelako zailtasunik izango duenik. /U.M.

ELGETA

## Udalak eta hainbat eragilek ezetz esan diote Europako Konstituzioari

Europako Itunaren gaineko galdeketa dela eta, hainbat eragilek testu bateratua sinatu dute *Europako Konstituzioari Ez!* izenburupean. Aralarrek, Elgeta Auzolanianek, Forjanor eta Recydeko komiteek, Esna Hadik, Maya Ingurumen Taldeak, gaztetxeak eta Euskal Herrian Euskarazek adostu zuten idatzia. Bestalde, martitzenean, osoko bilkuran, Europako Itunari ezezkoa ematea erabaki zuen Udalak, Aralarko zinegotzien eta EAko Iñaki Ugarteburuten aldeko botoekin. /I.A.



EDU MENDIBIL

BERGARA

# Agorrosingo barruko igerilekuak, 2006ko udarako gertu

Agorrosingo barruko igerileku berriak 2006ko ekainerako izango dira amaituta. Fernando Tapia Gizarte eta Erakunde Harremanetarako diputatua, Iñaki Ugarteburu Diputazioko Kirol zuzendaria, Victoriano Gallastegi alkatea, Valentin Egidazu Kirol zinegotzia eta Alvaro Amezaga arkitektoa izan ziren martitzenean lanak ikusten. Amezaga eta Jorge Muntaniola dira kirolgune berriko proiektuaren egileak. 2004-2007ko aldiko Inbertsioen Aparteko Planaren barruan, Diputazioak 2,1 milioi euroko dirulaguntza eman dio Bergarako Udalari. Hasiera baten, 2006ko udara bitarteko aurrekontua 7,5 milioi euro da. Azken fase baterako geratuko da kanpoko igerileku berria, beste bi milioi euro inguruko aurrekontuarekin. /E.M.

ARETXABALETA

# Alegazioak aurkeztuko dizkiote lursailen jabeek Aizkorriko parkeari

Aizkorri-Aratz aldeko lurrak parke natural izendatuko ditu Eusko Jaurlaritzak sei hilabete barru. Proiektua ikusgai dute Aretxabaletako Udaleko Hirigintza Sailean, eta joan zen astean Aizkorri-Aratz aldeko natura baliabideen antolaketaren gainean azalpenak ematera etorri zen Bioaniztasuneko zuzendari Josu Erkiaga. Lursailen jabeak, baina, ez ziren batere gustura geratu, eta alegazioak aurkeztuko dizkiote proiektuari.

**JABEGO PRIBATUAK GEHIAGO**

Aizkorriko parke naturalak 19.000 hektarea izango ditu, eta herri askotako lurrak hartuko ditu, Debagoienean Oñati, Eskoriatza eta Aretxabaletakoak. Gure herriari dagozkion ia 1.000 hektarea izango dira parke natural; horietatik 165 publikoak dira eta 781 jabego pribatuak. Eskoriatzaren kasuan 200 inguru dira publikoak eta 1.300 pribatuak, eta Oñatiren kasuan 1.720 publikoak eta 2.519 pribatuak. Hortaz, gehiago dira jabego pribatuak.

Ez daude parkea egitearen aurka, baina lursailen jabeek zeresan handia daukatela gai horren inguruan uste dute, eta ez dietela inork iritzirik eskatu. Planaren atzean, gainera, hutsune handiak ikusten dituzte, eta eskubideak kentzekotan ordainen bat behar dutela diote. Hori horrela, alegazioak aurkeztuko dizkiote parke naturalari. Dagoeneko gertatuta dituzte, eta gura duenak sina ditzake. Alegazioak aurkezteko epea martitzenean bukatuko da. /M.A.

**Zertzelada**

**Lursailen jabeak ez daude parkea egitearen aurka, baina jabeek zeresan handia daukatela uste dute, eta inork ez diela iritzirik eskatu diote**

OÑATI

# Zuhaitz azoka egingo dute domekan, hasi den ingurumen astean

Natur eskolak ingurumen astea antolatu du aurten ere. Atzo, eguena, zinekluبeko film batekin hasi zituzten aste honetarako antolatu dituzten ekitaldiak, eta domekan zuhaitz azoka egingo dute.

Herriko Plazan egingo dute, domekan, zuhaitz azoka. Goizeko 9etan hasita, hainbat zuhaitz mota ikusteko eta erosteko aukera izango da bertan. Azokaz gainera, ordea, antzezlanak, filmak eta hitzaldiak ere antolatu dituzte. Hain zuzen ere, hitzaldiak natura eskolan bertan izango dira, eta ura eta energia, plan hidrologikoak, Itoizko urtegia eta Kantauriko zetazeoak izango dira gaietako batzuk. /OIHANA ELORTZA



GOIENKARIA

Ehunka zuhaitz eta landare mota egongo dira zuhaitz azokan.

ARRASATE

## III. Cante Flamenko Txapelketaren finala izango da, Amaia antzokian

Bost lagun lehiatuko dira bihar, zapatua, jokatuko duten finalean: Kordobako Isabel Rico, Gasteizen bizi den Paco Guerrero, Getafen bizi den Rocio Ruiz eta Nafarroan bizi diren Antonio eta Jose Parra anaiak. 19:00etan hasiko da eta doan izango da sarrera. Hori bai, txartelak eskuratu egin behar dira. Al Andalusen bertan eska daitezke edo bihar, 18:00etan, antzokiko txarteldegian.

Ekitaldiarekin baikor daude elkarteko arduradunak, aurreko bi edizioetan antzokia betetzea lortu zuten-eta. /U.M.

ESKORIATZA

## Zozketa solidarioa egin, eta 8.157 euro batu dituzte Asiara bidaltzeko

Arizmendi ikastolako Almen gunean ikasten dabiltzan batxilergoko ikasleek ekimen solidarioa egin berri dute. Asian tsunamiak kaltetutakoei laguntzeko asmoz, zozketa solidarioa antolatu zuten. Bildutako dirua Asian lanean dihardu en Intermon Oxfan gobernuz kanpoko erakundeari eman diote, dirua kudea dezan. Guztira, 8.157 euro jaso dituztela eman dute aditzera. Lehenengo saria Kilometroak 2005eko produktuen saski bat eta bigarren saria bidezko merkataritza produktuez osatutakoa. /Z.V.M.

GATZAGA

## Lehendakaria eta sotoaren arduraduna aldatu dituzte elkartean

Elkarteko bilera egin zuten domekan Leintz Gatzagan, eta, beste kontu batzuen artean, bi batzordekide berri sartzeko bozketa egin zuten. Elkarteko lehendakaria eta sotoaren arduradunak kargua utzi dute. Kargu horiek nortzuek beteko dituzten martxoaren 1eko bileran erabakiko dute.

Bestalde, martitzenean, hilak 22, herriko emakume taldeak bilera egingo du, 20:30ean, elkartean. Besteak beste, urteko bilera nora egin erabakiko dute bertan. /Z.V.M.

Kutxa Zeharo programa Kutxaren gizarte ekintzetarako sailak Gureak taldearekin batera jarri duen zerbitzua da. Behar duenari lana bilatzeko zerbitzua da, eta Arrasaten zabaldu du egoitza aste honetan.

OIHANA ELORTZA



OIHANA ELORTZA

# *Mariano Cortes*

KUTXA ZEHARO PROGRAMAREN ARDURADUNA

## “Gizartetik baztertuak izateko arriskua dutenei lana bilatzeko zerbitzua da Kutxa Zeharo”

DEBAGOIENERAKO ASMOAK

**“2005ean 40 bat lanpostu aurkituko ditugula kalkulatu dugu. Orain arte elbarriekin egin dugu lan, eta hemen badugu esperientzia, Fagor eta Ulmarekin, adibidez”**

ARRASATEKO BULEGOA

**“Lau langilek egingo dugu lan, eta horietako bi teknikariak dira: lanbide orientatzailea bat eta lan prestatzailea bestea. Langile berriari lanpostuan integratzen lagunduko diote”**

**Zer da Kutxa Zeharo programa?**
Gizarte bazterketa handia jasateko arriskuan dauden pertsonak laneratzeko zerbitzua da. Hauxe da programa horren helburua: lana bilatzeko zailtasunak dituzten lagunei laguntzea.

**Enplegu zerbitzua da, beraz?**
Bai, baina enplegu zerbitzu berezia da, gertutasuna eta banakako arreta garatu nahi dituelako. Lana bilatu nahi duen herritarrarekin hitz egiten dugu, harremanetan egon gura dugu eta jarraipena gertutik egin nahi diogu.

Arreta pertsonala eskaintzen dugu, eta horixe da berezitasuna. Teknikoki, berriz, lana bilatzeaz gain, lan prestatzaile bat bidaltzen dugu enpresara eta bere gain hartzen du langile berriaren prestazioa. Gure inguruan zerbitzu berria da.

**Nori zuzenduta dago zuen zerbitzua? Norendako da?**
Esan bezala, gizarte bazterketa jasateko arriskua duten pertsonei zuzenduta dago. Horien artean daude, batez ere, etorkinak, elbarriak, gutxiengo etnikoak, 40 urtetik gorako langabeak, lan bila ari diren emakumeak, drogaren edo alkoholaren kontsumoaren ondoren errehabilitazio prozesuan dauden pertsonak, eta baita preso ohiak ere.

Muturreko egoeretan dauden herritarren kolektibo horiek zailtasun handiak izaten dituzte lana aurkitzeko, dituzten ezaugarriek eragotzi egiten baitiete gaur egun dauden laneratze zerbitzuen aldetik behar bezalako arreta jasotzea.

**Kutxa Zeharo egitasmoaren barruan, bigarren bulegoa da. Zergatik aukeratu duzue Arrasate?**
Uste dugu eskualde aproposa dela baztertze arriskuan dauden pertsonei laguntdu ahal izateko. Oraingoz, bailara honek ospea du aberatsa dela eta desenplegu txikia dagoela. Hala ere, langabe nukleo gogor bat ere badago, eta horri laguntzeko etorri gara, pertsona horiek lan esparruan sar daitezen.

**Badakizue, gutxi gorabehera, Debagoienean zenbat pertsona dauden gizartetik kanpo egoteko arriskuan?**
INEM erakundeak eman dizkigun hainbat datu ditugu. Hala ere, gure asmoa da lan poltsa bat jorratzea. Hori izango du gure lehenengo urratsa. Horrekin batera, jendea ezagutu nahi dugu, eta, herritar horien ezagutza oinarri hartuta, inguruko enpresen azterketa selektiboa egingo dugu.

Gestiorako plan bat egin dugu eskualde honetarako eta hor kopuru bat jarri dugu: 40 bat lanpostu 2005. urterako. Hala ere, egoera ezagututa jakingo dugu lanpostu gehiago sortzeko moduan egongo garen edo ez. Hasierako kalkulua baino ez da.

**Orain arte izan duzue eskaerarik Debagoienean horrelako bulego bat jartzeko hemen?**
Aktibitate horrekin urte asko daramatzagu lanean Debagoienean, baina orain arte elbarriei zuzenduta bakarrik egin dugu lana. Esperientzia ugari dugu Debagoieneko enpresa nagusi askotan, elkarlanean aritu gara-eta.

**Adibidez?**
Fagor eta Ulma enpresetan. Kasualitatez, beste esperientzia bat hasi genuen astelehenean Fagorren. Elbarri bat zerbitzu horri esker hasi zen lanean. Fagorrekin duela bi urte hasi ginen kolaboratzen, eta hura ez da lana topatu diogun lehen pertsona.

**Zer lan baldintza izaten dute pertsona horiek? Baldintza eta soldata duinak bermatuko dituzue?**
Bai, bai, lan baldintza duinak bermatuko ditugu. Pertsona horiek langile bezala sartzen dira enpresa batean eta gainerako langileek dituzten baldintza berak izango dituzte; enpresa horren lan hitzarmena aplikatuko zaio, beste edozein langileri aplikatzen zaion moduan.

**Zenbat pertsonak egingo dute lan Arrasateko bulegoan? Eta zein lan egingo dute?**
Bulego horretan lau pertsonak egingo dugu lan. Horietako bi teknikariak izango dira: lanbide orientatzailea eta lan prestatzailea. Orientatzailearen lana izango da bulegora hurbiltzen diren pertsonak ezagutzea eta baita enpresarekin harremanetan jartzea ere. Lan prestatzailearen figura, berriz, figura profesional berria da. Langile hori hasiko da lanean erabakitzen dugunean lanpostu bat beteko duela autonomia txikia duen pertsona batek. Lan prestatzaileak lanpostuan integratzen lagunduko dio langileari, hark prestatuko du langilea lanpostu horretan lan egiteko, arlo horretan trebatuko du.

**Zenbat metro koadro ditu Arrasateko bulegoak, eta nola antolatu duzue?**
Gutxi gorabehera, 100 metro koadro ditu. Barruan, bilera gela bat, bulego bat eta lanerako gune komun bat ditu, baita elkarrizketak egiteko gela bat ere. Astelehenetik egubakoitza bitartean egongo da zabalik, goizez eta arratsaldez.

**Urrian Donostiako Gros auzoan zabaldu zenuten Kutxa Zeharoren lehenengo bulegoa. Nolakoa da balantzea?**
Balantzea oso positiboa da. Ezagutu ditugu 273 pertsona zehazki, guztiak hainbat kolektibotakoak. Horietatik 46k kontratua sinatu dute inguruko enpresa batean eta beste 15 pertsona prestakuntza ikastaroetan hasi dira.

**Zer-nolako lanak aurkitu dituzue pertsona horiendako?**
Oinarritu gara aukeraketa egiterako orduan, eskarien profiletan. Horri begira, plan komertzial bat antolatu dugu ostalaritza arloan, adibidez. Baita hirugarren pertsonen laguntza behar duten sektorean ere: ospitaleak, etxeetako laguntza zerbitzuak... Eraikuntza arloan ere murgildu gara. Hala ere, prospekzio zabalari eusten diogu.

**Zein da lana aurkitu duten horien profila?**
Era askotako lagunak daude lana aurkitu dutenen artean, baina nik esango nuke gehienak emakumezkoak izan direla eta 45 urtetik gorakoak.

**Egiten diozue jarraipenik gero?**
Ez bakarrik jarraipena, baizik eta laguntza ematen diogu kontratuak irauten duen bitartean. Lehendabizi, aldi batean, harekin gaude zortzi orduan eta gero ere epe luzean egiten diogu jarraipena: bisitak eginez, telefonoz ere deitzen diogu ...

**Etorkinen presentziarik nabaritu duzue?**
Gero eta gehiago ari gara nabaritzen. Hasieran, etorkinak nondik etorri diren arabera, gehiago kostatu zaie zerbitzura gerturatzea eta gurekin harremanetan jartzea. Adibidez, Afrikako iparraldetik datozenei gehiago kostatzen zaie Hego Amerikatik datozenei baino. Baina poliki-poliki talde handia osatzen ari gara.

Baina proiektua zabalik dago edozein pertsonarendako, etorkinendako ez ezik, errenta txikia dutenendako edo droga arazoak dituenarendako ere bada, pentsatzen dugulako langabezian egotea, berez, arrisku faktore bat dela.

**Zer egin behar du ezaugarri horiek dituen pertsonak lana bilatu nahi badu?**
Kutxa Zeharo bulegora etorri behar du lehendabizi. Hemen eskari bat beteko du eta guri entregatuko digu. Guk hitzordua emango diogu elkarrizketa sakona egiteko, eta hortik aurrera zain egon behar du pertsonak guk deitu arte, ze lan aukera edo prestaziorako ze ikastaro aurkitu dizkiogun azaltzeko.

**Baduzue harremanik beste giza elkarte batzuekin?**
Helburu nagusienetako bat da elkarlana jorratzea, batez ere udaletako gizarte zerbitzuekin eta baita enplegu zerbitzu publikoekin ere; INEMekin eta Lanbide zerbitzuekin, adibidez. Gainera, Lanbideren entitate laguntzailea gara eta bitartekari lanak egiten ditugu lanpostuen prestazioak emateko.

# Gutunak

## Aste Santua, Aratusteak…

Zergatik aldatzen dira urtero Aste Santua, Aratusteak…? Hitz gutxitan esateko, naturaren arrazoia da, nahiz eta erlijio katolikoan onartuta egon. Udaberriko lehenbiziko ilargi betea edo ilbetea ospatzen denean, orduan, hurrengo domeka Piztuerako Pazkoa da. Konkretuki hori gerta daiteke martxoaren 22tik apirilaren 25era bitartean. Aurreko domeka Erramu Eguna izaten da eta hortik atzeraka ikusita, berrogei egunera Hausterre Eguna da. Denok dakigun moduan, Aratusteak aurreko egunak dira. Adibidez, Mendekoste jaiak (Bergarako jai nagusiak) 50 egunera dira, Piztuera Pazkotik hasita.

Hori guztia aspaldi erabaki zen. Zehatz-mehatz jakin nahi baduzue, Elizako Batzar Nagusi baten izan zen, Nizeako Kontzilioan, 325. urtean, adierazi nahi dut.

Azken kontzilioan Vatikano II.an saiakera batzuk egin ziren behin betiko egun finko bat jartzeko Pazkoetarako . Adituek esaten dute Jesusen heriotza izan zela apirilaren 14an *Nisan* hilean. Horregatik, data hori kontuan hartuta hurrengo domekak Pazko Eguna izan behar zuela. Halaxe ez ziren izango aldakorrak Aste Santua, Aratusteak, eta abar. Baina judutarrak eta ortodoxoak, batez ere Errusiakoak eta Greziakoak, kontra jarri ziren (katolikoen aurka) gai horretan, eta honako hau esan zuten: naturak ilargi betearen bitartez erakusten diguna errespetatu behar dela.

Munduan zibilizazio eta kultura askotan egutegi bereziak daude. Adibidez, musulmana eta txinatarra. Baina kristauen egutegia arrazoi ekonomikoengatik onartzen da, *gregoriano* egutegi izenarekin, Gregorio VII.a aita santuaren oroimenez.

IBON APERRIBAI
Arrasate

## Fagorreko sortzaileak

Aurtengo urtarrilaren 30ean kaleratutako *El Diario Vasco*-n Foru Aldundiak Arrasateko Talde Kooperatiboaren sortzaileei Gipuzkoako urrezko domina eskainiko diela jasotzen zen.

Albistearen arabera, diputatu nagusia den Joxe Joan Gonzalez de Txabarrik Gipuzkoako Foru Aldundiko erabakia aditzera ematerakoan honako hau agertu omen zuen: “Kooperatiba Mugimenduaren sortzaileei dagokienez, 50eko hamarkadaren erdialdera kooperatiben oinarriak eraiki zituzten gazte arrasatear haiek goraipatu nahi ditugu. Berauen izenak Luis Usatorre Arriola, Jesus Larrañaga Lizarralde, Alfonso Gorroñogoitia Gonzalez eta Jose Maria Ormaetxea Uribeetxeberria dira.

Alfonso Gorroñogoitia, Jose Maria Ormaetxea nahiz Luis Usatorreren eta Jesus Larrañagaren sendiak zoriondu nahi ditugu Gipuzkoako Foru Aldundiak eskaini dien dominagatik, Arrasateko kooperatiben alde beraiek burututako lan eta emariaren aitorpena bidezkoa dela uste baitugu”.

Lerro hauen arrazoi nagusia da *El Diario Vasco*-k kaleratutako albisteak —Arrasateko lehen kooperatibaren sortzeari buruzkoa— agertzen duen zehaztasunik eza. Gure herriko kooperatibetako hasierako bazkideek ongi dakitenez, Ulgorreko hasiera-hasierako taldea bost pertsonaz osatuta zegoen, eta, ondorioz, “Or” letrak Ormaetxea eta Ortubai abizenekin lotuta zeuden. Alegia, beste bosgarren pertsona bat, hots, Jabier Ortubai Arana, 1955eko Ulgorreko talde sortzaileko partaide izan zen.

Ondoren, bizitzako gorabeherek Jabier Ortubai Gasteizera eraman zuten, eta, bertan, ekintzarako zein gestiorako izan zuen ahalmena erakutsi izan zuen, Kemen izeneko enpresa sortuaz. Geroztik, eta bere heriotza arte, Jabier Ortubaik Arrasateko kooperatibekin modu ezezagunean elkarrekin lan egiten jarraitu izan zuen. Era berean, Fagorreko bazkide izaten jarraitu zuen eta baita bertan bere kapital ekarpena eduki ere, kooperatibetako arauak aldatu izan ziren arte.

Gure osabaren oroitzapen maitekorra gogoan daukagularik, lerro hauen bitartez, apaltasun osoz eta besterik gabe, Arrasateko lehen kooperatibaren sortzea argitu nahi genuke. Izan ere, egunkarietan jaso izan diren albisteak eta kooperatibetako historia zehatza bat etor daitezen ardura gurea izan zitekeela pentsatu baitugu.

MIKEL, AITOR ETA XABIER OROBENGOA ORTUBAI; SONIA ORTUBAI BALANTZATEGI; MILAGROS ARREGI ORTUBAI; ANDONI, IBAN ETA AITZOL LOPEZ DE MUNAIN ORTUBAI
Arrasate

## Iritzi hobea izate aldera

Herria baztertuta duela adieraziz idatzi zuen *Goiena.net*-en. Uste dut ez dela lehen aldia *Oinbez*-ek ordenagailua hartu eta akusazio hau egiten duena. Lehenago ere irakurri dugu horrelakorik. Orduan ez genion erantzun, jakinik arrazoi izpirik ez zuela, baina gauzak behin eta berriz errepikatuz gero, giro eta iritzi bat sor daitekeenez erantzutera derrigortuta gaude oraingoan.

Ez dut denbora luzerik emango. Datuekin erakutsiko diot *Oinbez*-i zein den errealitatea. Libre izango da gero bere iritzi horretan jarraitzeko, baina besteok norberarena osatzeko oinarri sendoagoa izango dugu.

Ariketa sinple bat egin dut. *Goiena.net*-en zenbat berri agertu diren herriz herri 2005eko urtarrilean aztertu dut. Hara emaitzak:

Arrasateko 19 berri; Aretxabaletako 19 berri; Elgetako 19 berri; Oñatiko 18 berri; Eskoriatzako 14 berri; Antzuolako 11 berri; Aramaioko 9 berri; Bergarako 9 berri eta Leintz Gatzagako 3 berri.

Non ikusten du irakurleak Eskoriatzarrekiko “marjinazinoa”? Ez behintzat urtarrileko datuetan.

Zorionez, eskoriatzar guztiak ez dira *Oinbez*-en iritzikoak. Goienan gure produktuek eragiten duten iritziari buruzko galdeketak egiten ditugu lantzean behin. Duela gutxi egin ditugu GOIENKARIA eta GOITBri buruzkoak. Eskoriatzarrek bi hedabide hauei buruz dituzten iritziak eskualdekoen batez bestekoen inguruan daude, baina goitik bi kasuetan. GOITBri 7,67 puntuazioa jartzen diote Eskoriatzan eta eskualdean 7,11. GOIENKARIAri, berriz, 7,75 Eskoriatzan eta 7,7 eskualdean.

Badakigu gure akatsak ere baditugula, eta puntuaketa hauek ez gaituzte lozorroan sarrarazten, hobetzen jarraitu nahi dugulako. Hala ere, garbi dago gizartearen iritzia eta *Oinbez*-ena ez datozela bat.Tira, *Oinbez*. Datu hauek argigarriak gertatuko zaizkizula uste dut, eta zalantzarik baldin badaukazu edo zerbait gehiago jakin nahi baduzu, badakizu non gauden. Gustura emango dizkizut eman beharreko azalpen guztiak zure iritzia osatuagoa izan dadin.

INAZIO ARREGI
(GOIENAKO ZUZENDARI NAGUSIA)
Debagoiena

## Bergarako familiei

Komunikabideetan 2005-06 ikasturterako matrikulazio kanpainaren berri izango zenutelakoan gaude. Aurtengoan, familiok nahi duzuen ikastetxean zuen seme-alaben izena emateko epea otsailaren 14tik 25era izango da.

Aukeraketa hau egiterakoan zuek gure eskolaren berri izatea da gure desioa.

Haur txikiak dituzuen familiei gure ikastetxeko informazioa zuzenean etxeetara bidaltzeko asmoarekin bi eta hiru urteko umeen zerrendak eskatu ditugu Udalean, Epaitegian eta Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzan. Denetatik erantzun bera jaso dugu: eskatutako datu hauek ez ematea erabaki dutela Datuen Babeserako Legeak horrela agintzen duelako. Beraz, ez dugu zerrenda hauek eskuratzerik izan.

Gure esku zeuden aukerak aztertu ondoren, txosten informatibo bat Bergarako etxe guztietan zabaltzeko erabakia hartu dugu. Jakin badakigu beste urte batzuetan ere txosten hauek ez direla interesatu guztien eskuetara iritsi. Honen bidez barkamena eskatu nahi dizuegu eta jakin ezazue eskola barrutik ezagutzeko gogoa baduzue edo beste edozein azalpenetarako zuen esanetara gaudela.

SAN MARTIN AGIRRE HERRI ESKOLAKO KONTSEILUA
Bergara

## Jon Agirre etxera

Arrasateko Union Cerrajerako eta torlojuen saileko langileok atsegin handiz gogoratzen dugu Jon Agirre Agiriano. Gure lankidea izan zen 1962tik 1975eko hasierara arte. Orduan Cerrajerakoak ziren sekzioetan egin zuen lan, automobilen eta kamioien gurpilen sekzioetan.

Kalean zela, Jonek jarraitu zuen guri laguntzen urte haietan egin genituen mobilizazioetan, gure lan baldintzak hobetzeko eta gure lanpostuen alde.

Bere osasun egoera larria dela-eta, kartzelan 23 urte eta erdi eman eta gero, Cerrajerako langile batzuek eskatzen dugu Jon berehala uzteko libre. Izan ere, gaixotasun sendaezina du eta, gainera, orain dela 10 urte bete zituen zigorraren hiru laurdenak, eta libre egon behar zuen. Horrela, indarrean dagoen legeria beteko litzateke.

Etxean eta herrian nahi dugu, gure artean.

CERRAJERAKO LANGILE BATZUK
Arrasate

## Euskaraz!

Dagoeneko badaramatzagu sei urte luze Bergarako epaitegian (Urola goia eta Debagoieneko epai-barrutian) euskarak jasaten duen zapalkuntza egoera salatuz. Edo, hobeki esanda, ofizialtasunaren legea urratua eta 49.000 herritarren hizkuntza eskubideak ukatuak direla salatuz.

Denbora tarte horretan hamaikatxo ekimen eta eskaera egin dira Arrasaten eta Bergaran; epaitegia euskalduntzeko oinarrien aldeko 2.000 sinadura batu, kontzentrazioa, manifestazioa eta bestelako salaketa ekimenak eta bi herrietako dozenaka eragileen babesa eta atxikimendua jaso.

Baina, antza denez, administrazioak herri eskaerari muzin eginez epaitegiko hizkuntza egoerak bere horretan dirau; lau epaile erdaldunekin eta langileen %47k bere jarduera euskaraz egiteko ez gaitasunarekin.

Aski da! Euskaraz bizitzea gure eskubidea da, eta administrazioaren bete beharra hori ziurtatzea.

Beraz, egoera hau aldatzeko berehalako irtenbiderik ziurtatzen ez badu, euskaldunok gai garen indarrarekin, bigarren mailako herritar izatea kondenaturik ez dugula bizi nahi adieraziko dugu.

Dagoeneko justizia administrazioak kaltetuak dituen Euskal Herriko hainbat herritarrek horretarako determinazioa dutela aski agertu dute. Hots, epaitegian dituzten edozein harreman euskaraz egiteko konpromisoa agertu dute.

Guk, Debagoieneko EHEk, jarrera hori hartu dutenak txalotzeaz batera, gainontzeko euskal herritar eta debagoiendarrak konpromiso bera hartzeko gonbita egin nahi dugu.

Ea, bada, gure esku baitago, herri eskubideak eskuratzea.

EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ
Debagoiena

## Aratusteak

Aratuste-domekan egunez egiten den jaia zuzenean bizi izan dut azken 20 urteotan; lehenengo mozorrotuta eta orain ikusle moduan, eta jaia osasuntsu dagoela uste dut. Koadrilen parte-hartzea ikusgarria da, eta ibarreko ikusleen etorrera izugarria (batzuek lau bueltа eman behar izan zituzten aparkatze-

ko). Aurten nobedadea izan den koadrilen arteko kalejirarekin ikusgarritasunean irabazi dugu, eta aurreko urteetan baino ordena handiagoa egon da.

Jaieguna denondako saria dela uste dut. Saria da mozorroa goxotasunez eta aldi berean urduritasunez gertatzea, saria da gertatutakoa erakutsi ahal izatea, saria da ikusleok besteen lanarekin gozatzea, saria da 82 urte dituen gaztea (*Joakinkamom*) lehenengo aldiz mozorrotzea, saria da Aratusteetako jaian lehenengo aldiz parte hartzen duten umeak ikustea, saria da motordun zaldiak eta euren gladiadoreak ikustea, saria da San Sebastian eguna ospatzea, saria da Bilbotik Marijaia ekartzea, saria da tuna batek ondo abestea, saria da brasildarren martxa bertatik bertara ikustea, saria da ahuntzak eta sakristaua dituen ijitoen herrixka ikustea, saria da saetak entzutea, saria da Txino dantzarekin gozatzea, saria da herri kirolak izatea Perurena barik, saria da Olinpiar Jokoak ikustea, saria da edozein mozorro, saria da honetarako guztirako Durana moduko kale bat izatea…

Eta, hala ere, aurtengo Aratusteak Alberto eta koadrilakoen hutsuneak nabarmendu ditu; datorren urtean parte hartzeko gertu izatea gurako nuke. Behintzat, Argazki Taldeak Albertori omenaldia egiteko kaleratu duen egutegiarekin gozatu ahal izan dugu; zoragarria da. Beharbada, eta Alberto ezagututa, tranbia pare bat antolatuko zituen gure Durana kalean zela geratuko zen ikusteko; izan ere, entzungor mozorrotutako gure politikariek a ze nolako kaka-nahastea antolatu behar diguten. Tranbia gerarazteko garaiz gabiltza? Oinezkoendako daukagun kale bakarretik pasatzen utzi behar diogu? Norbaitek azal diezaguke zein onura ekarriko digun?

Bukatzeko, mozorrotu ziren guztiei, zorionak, beste batzuek gozarazteko gozatzen jarrai dezazuen animatu, eta, nork daki, beharbada hauetako urteren baten berriro mozorrotuko naiz…

G. ARRIETA
Aretxabaleta

## Bergara aldeko hiztegia

Ostiraletan arratsalde lasaia izaten dut komente. Ez da halakoa izan otsailaren 11koa. Azkenekotik hasita, justuan iritsi banaiz ere gaueko 10:30etan Gasteizen Korrikaren aldeko bertso-saioan izateko aukera izan dut. Eta hor amaitu zait eguna.

Arratsaldeko 6:00etan bazen Arabako hiriburuan Kazuyuki Taketani irakasle japoniarraren kirol-antropologiari buruzko hitzaldi bat, orain aipatuko ez ditudan arrazoiengatik intereseko zitzaidana (japoniar hau euskal kiroljokoen politikak aztertzen ari omen da. Eta hemen zertan gara?). Adiskide batek bi orduko hitzaldia grabatuko duen esperantzatan, hara ez joatea erabaki dut; izan ere, arratsaldeko 7:00etan hitzordu garrantzitsua zen Bergaran: Juan Martin Elexpururen *Bergara aldeko hiztegia. Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osotuta* liburuaren aurkezpena. Eta hori ezin nuen huts egin. Ez nion, bestela, neure buruari barkatuko. Eta halaxe, beribil xaharrarekin ozta-ozta iritsi naiz Bergarara, eta aparkatzea ere lortu dut (eta hori ordu horretan Bergaran lorpen itzela da!). Udaletxera iritsi naizenerako, hasi berria zen aurkezpena, eta Juan Martin bera ari zen berba egiten, beti letxe atsegin eta umoretsu (sukaldaria ere ona litzateke Juan Martin, gatza eta piperra beti baititu aldean). Areto dotorea jendez beterik, aulki bakoitzean liburuaren gaineko diptiko txukun-txukuna, Sarasolak huts egin badu ere mahai-buelta bikaina… Aldamenetik Serafin eibartarrak bota dit, barretxoa eginez: "Honeik bergatarrok elegantiak dittuk, gero!". Eta bai benetan, dena elegantea zen han. Txapela kentzekoa.

Ez naiz larregi luzatuko. Elexpuruk egindako lana (eta Jaione Isazelaiaren eta abarren laguntza ere ezin ahaztu) ikaragarria da, eredugarria izateaz gainera. Bere literatura-lanak eta gainerakoak aipagarriak badira ere, hau bizitzako lana da, orain arteko bizitzakoa gutxienez. Euskal hiztegigintzan izen handiak ditugu: Larramendi, Azkue, Lhande, Mitxelena, Sarasola… Elexpuru ere, nahiz eta esparru mugatuagoan aritu, zerrenda horretan sartu behar delakoan nago. Nire zorion beroenak, hortaz. Hauxe izan da aspaldian jaso dudan oparirik onena, bizi naizen artean sarritan esku artean erabili eta gozatuko dudana. Eta hauxe nire gomendioa euskaltzale horri: ez badizute oparitzen, eros ezazu liburu hau, bazkari on batek baino hazkurri askoz hobea eta iraunkorragoa emango dizu eta. Eta, izan seguru, ez zaizu garbatuko!

TXIPI ORMAETXEA
Gasteiz

## Eskerrik asko!

Loramendik joan zen domekan (Aratuste-domeka) tabernen arteko I. dekorazio lehiaketa antolatu zuen Aretxabaletan. Gure helburua herrian hain pisu handia duen festa honetan Euskal Mitologia uztartzea izan zen eta horretarako eskatu genizuen zuen parte-hartzea. Bost taberna izan zineten animatu zinetenak, lehiaketari bizitza eman zeniotenak, eta zuen erantzuna benetan eskertzen dugu. Nork bere ahaleginaz herrian euskal kulturaren alde ekimen politak egin daitezkeela erakutsi zenuten eta guri ere gauza berriak antolatzeko bultzada eman zeniguten. Aurrerantzean ere zuekin kontatuko dugu gure ekintzak antolatzerakoan. Eskerrik asko, berriz ere!

LORAMENDI EUSKARA ELKARTEA
Aretxabaleta

## 18/98 sumarioaz

Joan den astean epaitzen hasi ziren Madrilen, Audientzia Nazional espainiarrean, 42 euskal gazte, Jarrai-Haika-Segiren aurkako sumarioan; tartean, Amaia Arrieta arrasatearra. Salagarria deritzogu horietako 22 gazte espetxean izan dituztela 2001eko martxoan atxilotu zituztenetik; salagarria diogu, espetxean egin dituzten urte horietan epaitegiak ezer gutxi egin duelako, eta orain lau urte epaitu gabe (hau da, legeak gehienez ahalbideratzen duen denbora) betetzera doazenean, Audientzia Nazionalak tramiteak azkartu ditu, epe hori 2005eko martxoa heldu baino lehen gazte horiek epai ditzaten. Deigarria da ere fiskalak horietako batendako, Asier Tapiarendako, 122 urteko espetxe zigorra eskatu izana; atxilotutako kideen aurkako operazio judizial eta polizial hura prentsaurreko batean salatu zuelako eta herritarrei ere salatzeko deia egiteagatik.

42 euskal gazte horien aurkako epaiketa hori 1998an Garzon epaileak *Egin* eta Egin Irratiaren itxieran sorrera izan zuen 18/98 sumarioaren barruan koka daiteke. Geroztik dozenaka euskal herritar atxilotu dituzte hainbat operazio polizialetan, eta zenbait herri-mugimendu (aipatutako gazte erakundeak, amnistiaren aldekoak, Zumalabe Fundazioa, Xaki, Ekin, Orain SA…) itxi edo legez kanpo utzi dituzte.

Gaur egun 220 euskal herritar daude inputatuta hainbat sumariotan; guztiei leporatzen diete ETA erakundeko partaide edo kolaboratzaile izatea. Baina inputatu horiei ez diete leporatzen ekintza armatuetan parte hartzea, herri-mugimendu, komunikabide edo enpresa horietako partaide izatea baizik. Guztien definizioa: Euskal Herria aintzat hartzea, eta proiektu politiko baten bitartez hura eraikitzea, edo euskararen aldeko normalkuntzan aritu komunikabide bat sortuz; hau da, Euskal Herria eraikitzeko konpromisoa izatea. Eta hori izan da 18/98 sumario horrek nahi izan duena: proiektu horren aurka aritzea.

Egoera horren aurrean, 18/98 + Plataforma sortu dugu gure bailaran; prozesu judizial hori salatzeko helburuarekin. Plataforma horrek aldarrikatu nahi du ideia guztiak adierazteko askatasuna dugula, baita ideia politiko horiek gauzatzeko eskubidea badela ere, eta haiek aurrera eramateko elkartzeko eskubidea dagoela. Hitz batean, eskubide zibil eta politikoak errespetatu egin behar direla. Eskubide horien defentsan eratu dugu plataforma hori.

Baina hori geldiaraztea guztion konpromisoa behar duenez, otsailaren 26an Bilbon zita bat dugu: han izango den manifestazioan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu!

DEBAGOIENEKO '18/98 +…' EKIMENA
Debagoiena

## Europaren norabidea aldatzea

Europar Batasunaren nahia aspaldikoa da. Baina, batasun ekonomikoari eman zaio lehentasuna eta merkatuaren menpean garatu da. Ondorioz, langileen eta herrialde txirotuen aurkako politika ekonomikoak sendotu dira eta ongizate maila eta giza babesa gutxitu egin dira batasun prozesuan.

Europar Konstituzioak aldarrikapen positiboak egiten ditu giza eskubide eta balioen mailan, baina ez du bermatzeko neurririk hartzen, merkatuak agintzen duenez giza eskubideak eta garapen sostengarria ukatu egiten ditu. Etorkinei (20 milioi pertsonei), partaidetzarako, bozkatzeko eta, libreki mugitzeko eta bizitzeko eskubideak ukatzen zaizkie

Tratatuak NATOri laguntza ematen dio, ez du desarme militar eta nuklearraren aldeko aldarrikapenik egiten, ez du gerra printzipio gisa ukatzen. Ezta gizonezko eta emakumezkoan berdintasuna jasotzen. Ez du kanpo zorra kitatzeko eta herrialde pobretuei BPGren 0,7a ordaintzeko asmorik azaltzen. Ez du herrien edo Estaturik gabeko nazioen autodeterminazio eskubidea bermatzen, ezta nazio eta hizkuntza aniztasuna onartzen. Agintariek ez dute herritarron partaidetza eta iritziak kontutan izan integrazio prozesu osoan.

Europak beste bide bat hartu behar du, horregatik gure leloak Europaren norabidea aldatzea aldarrikatzen du: langabeziarik eta prekarietaterik gabeko Europa behar dugulako, langileen eskubideekiko begirunea, gizarte babes handia. Nekazaritza, nekazarien eskuetan nahi dugu, elikagaiekiko burujabetza eta kalitatearen bermea. Asilo eskubidea, aske ibiltzeko aukera denontzat, bertan bizi diren atzerritar guztien hiritartasunaren onarpena. Gizon eta emakumeen arteko era bateko parekotasuna. Burujabetza, kultura eta hizkuntza aniztasuna. Gerra, inondik inora onartuko ez duen Europa, desarmearen aldekoa, energia nuklearraren eta NATOren aurkakoa. Munduaren sostengarritasuna oinarritzat hartuko duena.

Horregatik, ezetz bozkatuko dugu eta bestelako Europa bat eraikitzeko bidean jarraituko dugu.

DEBAGOIENEKO ZUTIK
Debagoiena

Goienkaria
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

ZUZENDARIA
Eneko Azkarate
ERREDAKZIO KONTSEILUA
Edorta Mendieta, Miguel Angel Elkoroberezibar, Josemari Velez de Mendizabal

ADMINISTRAZIOA
Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa
SAILETAKO ARDURADUNAK
Iñaki Iturbe (Diseinua)
Gotzon Arzelus (Publizitatea)

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga, Natali Martínez, Izaskun Bolinaga, Ziortza Martín, Imanol Elortza, Amaia Mundiñano
PRODUKZIOA
Iban Arantzabal

TESTUEN ZUZENKETA
Sergio Azkarate
HARPIDETZA ETA BANAKETA
Marta Leturia

Goiena Komunikazio Zerbitzuak
LEHENDAKARIA
Estepan Plazaola
ZUZENDARI NAGUSIA
Iñazio Arregi

GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen orri hauetan adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

# Arrasatek eta Aretxabaletak derbia, maila goreneko xakean

## San Andres eta Arlutz taldeak nor baino nor gehiago, bihar

XABIER URTZELAI

**Euskadiko maila goreneko xakeko ligan, Ohorezko Ligan, Debagoienak bi ordezkari ditu: Arrasateko San Andres eta Aretxabaletako Arlutz. Derbia jokatuko dute bihar Arrasaten, behar ezberdinekin. Arrasatekoak larri dabiltza, baina Aretxabaletakoak ezin dira despistatu.**


GOIENKARIA
Puntu guztiak beharrezko dituzte debagoiendarrek.

Derbia berotzen hasteko bi taldeetako xakelariekin izan gara, Josu Tornayrekin eta Fran Miguelekin. Arrasate San Andres taldea azkenaurrekoa da sailkapenean; Arlutz taldea, berriz, erdialdean dago. Tornayk esan digu zorte txarra izan dutela: "Ez dut uste aretxabaletarrak gu baino hobeak direnik. Nahiko parekatuta gaudela esango nuke. Hori bai, aretxabaletarrek dagoeneko badakite Ohorezko Ligan zelan jokatu, lau urte egin dituzte-eta maila gorenean, eta hori igarri egiten da. Hori da guri falta izan zaiguna, esperientzia, irabazita geneuzkan hainbat partida galdu egin ditugulako. Alde horretatik, esan beharra daukat nik behintzat hanka-sartze ederrak egin ditudala, eta maila horretan kontrarioek ez dute hori barkatzen".

Fran Miguelek ere bat egin du Tornayrekin; aretxabaletarrak ez du uste bi taldeen artean alde handia dagoenik: "Biharko derbian, normalena izango litzateke 2-2 egitea. Gu irabaztera joango gara, baina ezin dugu hankasartzerik egin, puntu guztiak dira-eta beharrezko. Orain arteko jardunaldiei dagokienez, esango nuke guk zorte apur bat izan dugula; arrasatearrek, berriz, kontrakoa, zorteak bizkarra eman die. Argi daukadana da, baina, gure taldea oso lehiakorra dela. Gorengo mailan ez da komeni ordezkoekin ibiltzea, eta gure taldeko lau xakelariek kalerik ez egiteko konpromisoa hartu genuen; hor dago gakoetako bat".

### LAU JARDUNALDIREN FALTAN

Hamar taldek osatzen dute Ohorezko Liga, eta, hasiera baten, azken hiru taldeek galduko dute maila. Arlutzek azken aste horietan ezusteko handirik ematen ez badu, ondo eutsiko dio kategoriari. Arrasatek, berriz, gogotik egin beharko du lan: "Baliteke hiru talde izan beharrean, bi talde baino ez jaistea. Kontua da azken lau jardunaldi horietan oso ondo egin beharko ditugula gauzak. Eta bihar bertan hasi beharko dugu horretan, Arlutzen kontrako derbia irabaziz".

## Kirolabur

### DEBAGOIENA/FUTBOL DERBIA AZKOAGAINEN

Aloña Mendik eta UDAk derbia jokatuko dute domeka arratsaldean, Oñatin (16:30ean, Zubikoan). Biak ala biak daude puntu beharrean; oñatiarrak jaitsiera postuetan daudelako eta aretxabaletarrak goitik behera datozelako. Alde horretatik, UDAk entrenatzailea aldatu berri du; Neka Galanen ordez, orain arte ohorezko gazte mailakoekin ibili den Felix Reciok hartu du taldea.

Bergara ere puntu beharrean da; Gordobilen mutilek Ordiziaren bisita izango dute zapatuan (16:30ean, Agorrosinen). Azkenik, Anaitasunaren zelaira joango da Mondra (zapatuan, 16:30ean).

### OÑATI/TKV TXIRRINDULARI TALDEAREN AURKEZPENA

Etxe-Aundin aurkeztuko dute bihar, 11:00etan, amateur mailako TKV txirrindulari taldea. Euskal Herri osoko hamasei txirrindularik osatuko dute talde hori.

Amateur mailako taldearekin batera, maila txikietako txirrindulari taldeak ere aurkeztuko dituzte. Pedro Irurtzunek eman digu horren berri: "Lizarralde Kirolak izenarekin izango ditugu bi talde, alebin eta infantil mailetakoak. Kadeteen taldea Ulmak babestuko du, eta zortzi ziklista ditugu hor. Gazte mailako taldea, berriz, Sumofic izango da; zazpi txirrindularik osatuko dute talde hori, gehienak ibarrekoak".

### DEBAGOIENA/ESKUBALOIA

Joan den astean azken minutuan egindako golari esker irabazi eta gero, Nazional Mailan dabilen Arrikrutz Oñatiko Kobak taldeak etxetik kanpo jokatuko du oraingo asteburuan. Oñatiarrak Loiura (Bizkaia) joango dira bihar arratsaldean, Aldaiturriaga Urdanetaren kontra jokatzera. Norgehiagoka 20:00etan izango da, baina partidua ikusi gura duenak, jakin, 17:15ean egongo dela autobusa, Correosen.

Euskadiko Mailan dabilen Bergarak etxean jokatuko du bihar, EHU taldearen kontra (17:45ean, Labegaraietan). Eta Lehen Territorialeko AGR Arrasate Ormaiztegiren kontra lehiatuko da domekan, 11:45ean, Zubipe kiroldegian.

### DEBAGOIENA/EUSKADIKO ESKI KOPAN, AURREAN

Oraingo asteburuan, Baqueira Bereten jokatuko dute Euskadiko Mendiko Eski Kopako hirugarren jardunaldia, eta hortxe izango dira aurrealdean dabiltzan ibarreko ordezkariak. Joan den astean lehenengo postuan sailkatu zen Isa Casadorekin izan gara: "Asteburuan izango dugun lasterketak ez du zerikusirik joan den astean Formigalen egin genuenaren aldean. Eguraldi txarra zela-eta, ibilbidea murriztu egin zuten, eta ez zen lasterketa gogorra izan. Baqueirakoa, berriz, Espainiako Txapelketarako baliagarria izango da, eta oso maila oneko jendea egongo da. Horrekin batera, igoera eta jaitsiera gogorrak egongo dira; beste kontu bat izango da hori".

CG CONSULTORIO GINECOLOGICO

Talde osoa emakumearen eskura:

- Antonio Estomba
- Fernando Cristobal
- Alfredo Otalora
- Jose M. Gomez
- Ainhoa Larrea
- Domingo Murgiondo
- Miguel Gabarain
- Maria Jose Ruiz
- Fatima Azkue
- J. Rodriguez
- Mikel Gorostidi
- Mikel Arroyo

Antzutasuna
Erditzeak
Antisorgailuak
Menopausia
Ekografiak (4D)
Titietako gaixotasunak
Minbiziaren diagnostiko goiztiarra
Hezur dentsitometria

Policlinica Gipuzkoa

ARRASATE
Zerkaosteta 17, behea
Tel.: 943 79 20 18

Donostia. Tel.: 943 30 82 08
Eibar. Tel.: 943 12 10 21
Irun. Tel.: 943 61 78 88



EUROPAKO ITUNA **ERREFERENDUMA 2005**

# Bai ala ez?

**Erantzuna, ASTELEHENEKO GOIENKARIAn**

- **Datu guztiak**
  Debagoiena
  Lurralde historikoak
  Hego Euskal Herria
  Espainia
- **Iritziak**
- **Kronika eta gorabeherak**
- **Debagoiendarron botoa inork baino zabalago landuta**

**ASTELEHENEKO GOIENKARIA**

**Erosi** astelehenean egunkari saltokietan, edo **egin zaitez harpidedun!**

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

ASTELEHENEKO **Goienkaria**

astelehenean, aste bukaera osoa

gasteiz on
centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

GASTEIZEN HITZORDUA DUZU

www.gasteizon.com

2005eko otsailaren 18tik 24ra

Florida Guridi
CINES ZINEMAK

zinea

*CINES GURIDI ZINEMAK*

*"CONSTANTINE"* ESTRENALDIA • 17:30 - 20:00 - 22:30
*"EL VUELO DEL FENIX"* • 17:00 - 22:30
*"EL AVIADOR"* • 19:15
*"RAY"* • 19:15
*"WHITE NOISE"* • 17:00 - 22:30
*"DROWING GHOST"* (EL FANTASMA DEL LAGO) ESTRENALDIA 17:30 - 20:00 - 22:30
*"LOS PADRES DE EL"* • 17:30 - 20:00 - 22:30
*"5 x 2"* ESTRENALDIA • 17:00 - 20:45 - 22:30
*"LEON Y OLVIDO"* • 6,45
*"ONE MILLION DOLLAR BABY"* • 17:00 - 19:45 - 22:30

*CINES FLORIDA - GURIDI ZINEMAK*

*"ENTRE COPAS"* ESTRENALDIA • 17:30 - 20:00 - 22:30
*"DESCUBRIENDO NUNCA JAMAS"* • 17:30 - 20:00 - 22:30
*"LOS CHICOS DEL CORO"* • 17:30 - 22:30
*"LARGO DOMINGO DE NOVIAZGO"* • 19:30
*"DOMICILIO PRIVADO"* • 19:00 - 23:00
*"AMOR IDIOTA"* • 17:00 - 21:00
*"EL HUNDIMIENTO"* ESTRENALDIA • 17:00 - 19:45 - 22:30
*"LA CASA DE LAS DAGAS VOLADORAS"* 17:00 - 19:45 - 22:30
*"PARA QUE NO ME OLVIDES"* ESTRENALDIA 17:00 - 19:45 - 22:30

Congresos y Turismo
Biltzar eta Turismoa
VITORIA-GASTEIZ

kultura

*URTARRILA • 18 ostirala*

MUSIKA
Euskadiko Orkestra Sinfonikoa. 20:00. Printzipal Antzokia
ANTZERKIA
"La ratonera". 20:30. Federico García Lorca Antzokia (Lakua Gizarte Etxea)

*URTARRILA • 19 larunbata*

MUSIKA
Kontzertu Didaktikoak. 12:00. Printzipal Antzokia
MUSIKA
Ghotic music. 17:00. Kinvara Aretoa
SABELIZKETA
Elvi El Ventri Loco. 18:30. Falerina lorategia. Montehermoso Kulturunearen ondoan, euskaraz.

*URTARRILA • 22 asteartea*

MUSIKA
Sinkro Musika Elektroakustikoko Jaialdia. 20:15. Jesus Guridi Musika Kontserbatorioa

*URTARRILA • 23 asteazkena*

ANTZERKIA
"Euskararen 7 bekatu nagusiak". 20:30. Printzipal Antzokia.

*URTARRILA • 24 osteguna*

MAGIA
Arabako Ilusionisten Elkartea. 20:00. Falerina loراtegia
ANTZERKIA
"Medea (la extranjera)". 20:30. Printzipal Antzokia. Atalaya konpainiak.

gasteiz on
centro comercial abierto
merkataritza-gune irekia

merkataritza

*GASTEIZ HIRIGUNEKO MERKATARITZAREN 3.FERIA*

*Beherapen kanpainaren errematea.*
*Otsailaren 24, 25 eta 26an.*
Tokia: Europa Jauregian.
Ordutegia:10etatik 14etara eta 17etatik 21etara.
*Haurtzaindegia eta Kafetegia*

| | |
|---|---|
| ADN Y USANZA | ALAZNE BOUTIQUE |
| ALOE VERA ARTESANA | ASISA |
| BOUTIQUE BABILOU | BOUTIQUE CHICAS |
| BOUTIQUE EUROPA | BOUTIQUE INFANTIL ELBE |
| BOUTIQUE PATRICIA | CALZADOS BASOCO |
| CALZADOS C. GIL | PITTY ROPA Y CALZADO INFANTIL |
| CENTRAL ÓPTICA | CESTERÍA GARCÍA |
| COMPUTER WORLD | COTT'O |
| CHEMOT | DONINGTON |
| ELECTRODOMÉSTICOS VITORIA | ESPERA OCIO |
| FONCEA | GAIKAR KIROLAK |
| GENERACIÓN X | IBAÑEZ ARANA |
| KARMELE BOUTIQUE | KIROLAK ZUBIAURRE |
| LA MUÑECA DE TRAPO | LENCERÍA YOAR |
| LENNOX | LIBRERÍA ANEGON |
| MARA MUJER | MARISA MODA |
| MIA MODA MUJER | MILORD |
| IBÁÑEZ | PASO DE CEBRA |
| PERFUMERÍA GIL | RÍOS MODA & DOTORE |
| SUGAAR | SWIMX |
| TAKIDA | TRIUM |
| WONXURF | ZAPATERÍA BENGOA |
| ZAPATERÍA KENNY | CAFETERIA JULTOM |

*Oharra: Esku diruzko ordainketak onartuko dira soilik.*

Laguntzaileak:

Arabako Foru Aldundia · Diputación Foral de Alava
Vitoria-Gasteizko Udala · Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz

Laguntzaile Bereziak

Cafés la Brasileña
eva




| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| J. Carlos Guerra 1 | Ibargarai 16 | Bidebarrieta 2 | Esmalteria Plaza | Mendibil M. G. | J.M. Barandiaran Enp. | San Frantzisko 23 |
| Tel.: 943 79 29 95 | Tel.: 943 76 15 75 | Tel.: 943 20 05 22 | Tel.: 943 51 78 11 | Tel.: 943 63 99 01 | Tel.: 943 88 99 88 | Tel. 943 69 84 70 |
| **ARRASATE** | **BERGARA** | **EIBAR** | **ERRENTERIA** | **IRUN** | **ORDIZIA** | **TOLOSA** |

Goienka2a

Kultura eta aisialdia

Egubakoitza / 2005eko otsailaren 18a

Otsailaren 18tik 25era



# Zum, zum, zum, CAPOEIRA eta gu

**ARIKETA FISIKOA, FOLKLOREA ETA MISTIZISMOA UZTARTZEN DITUEN ARTE MOTA HORREN IKASTAROAK DAUDE GUREAN, ETA GERO ETA ZALE GEHIAGO DITU. HARTZEN DEN MODUAN HARTZEN DELA, TALDEAN ONDO PASATZEKO AUKERA POLITA DA**

Batzuek borroka-arte moduan ikusten dute; beste batzuen iritziz, dantza exotiko bat da, eta ez gutxik dute euren erlijio eta kultura izaeraren zeinutzat. Capoeiraz ari gara, Brasilen mendetako historia duen praktika errotu batez.

Legez kanpo, gaizki ikusita eta jazarria izan ondoren, mundu osoan hedatzen ari da gaur egun. Debagoienera ere iritsi da, gero eta lagun gehiago erakarrita. Oraingoz, Eskoriatzan eta Oñatin ikastaro bana ematen du hemengo irakasle batek, Igor Ezpeletak, eta edozein unetan dago parte hartzen hasteko aukera. Ondo pasatzeko eta, euskaldunondako bereziki, lotsa kentzeko aukera paregabea izan daiteke, capoeirari dagokion musikaren erritmo itsaskor eta misteriotsuen berora. Gainera, norberak nahi duen bezala eta nahi edo ahal duen maila arte lan dezake arte hori. /15

LEIRE KORTABARRIA

AZALA: IÑAKI ITURBE / JATORRIZKO ARGAZKIA: IGOR EZPELETA

BERTSOLARITZA/ IBARREKO HIRU BERTSOLARI, ARABAKO TXAPELKETAN

# Hiru aramaioar, txapelaren atzetik

ANDERE ARRIOLABENGOA ETA IKER AGIRREK BIHAR, ZAPATUA, DUTE KANPORAKETA; MANEX AGIRRE FINALERDIRA PASA DA ZUZENEAN

LEIRE KORTABARRIA

**Debagoieneko bost lagunek parte hartuko dute, bertsolari, epaile eta gai-jartzaile artean, Arabako Bertso Txapelketan. Bihar, zapatua, lehenengo kanporaketa jokatuko dute Andere Arriolabengoa eta Iker Agirre aramaioarrek. Manex Agirre da ibarreko hirugarren lehiakidea.**

Andere Arriolabengoa (Aramaio, 1982) eta Iker Agirre (Aramaio, 1987) bertsolari gazteek bihar, zapatua, jokatuko dute lehen kanporaketa, Araiako Andre Mari aretoan, 19:00etan, beste zortzi lehiakiderekin batera. Hirugarren debagoiendarrak, Manex Agirrek (Aramaio, 1982), zuzenean finalerdia jokatuko du, iaz finalista izan zelako. Martxoaren 12an izango da bere txanda, Amurrioko Katekesi aretoan, 19:00etan. Kanporaketetan sailkatuko diren 2., 4. eta 6. bertsolariak eta Asier Otamendi eta Iñaki Viñaspre iazko finalistak izango ditu aurkari. Manex Agirrek bigarren egin zuen 2002ko txapelketan, eta bai Anderek, baita Ikerrek ere, esku hartu dute txapelketa horretan.

Guztira, 23 bertsolari ibiliko dira buruz buru aurtengo txapelketan. 18k kanporaketak jokatu beharko dituzte, eta iazko bost finalistekin batera, horietatik zazpik lehiatuko dituzte finalerdiak. Horietatik seik borrokatuko dute txapela apirilaren 19ko finalean, Gasteizen.

**ANTOLAKUNTZAN, BESTE BI**

Beste bi debagoiendar daude txapelketako antolakuntzan. Hain zuzen, Xabier Ormaetxea aretxabaletarra epaile lanetan ibiliko da, azken urteotan bezala, beste lau aditurekin batera.

Bestetik, Lierni Altuna, aramaioarra hura ere, gai-jartzaileetako bat izango da. Martxoaren 19ko finalerdian izango da gai-jartzaile. Legutianoko kultura etxean jokatuko da saio hori, 19:00etan.



AITOR LIZARRALDE

**Andere Arriolabengoa.**

Nola ikusten du etorkizuna etxea eta familia 13.000 km baino urrunago utzi dituenak?

kutxa zeharo




Honelako pertsonak lanean ikusten ditugu **kutxa**n.

Horretarako, **"Gureak" Taldearekin batera, kutxazeharo** jarri dugu abian. **Gizartean baztertuak izateko arriskua duten pertsonak lan-munduan txertatzeko zerbitzu osotua da;** hala nola etorkinak, ezinduak, epe luzean langabezian dauden adindunak, droga- edo alkohol-kontsumotik sendatzen ari diren pertsonak, enplegua lortzeko zailtasunak dituzten emakumeak...

Bertan, enplegua bilatzen laguntzeaz gain, beharrezko trebakuntza eskaini eta enpresekiko lan-kontratua ere kudeatzen diete.

Beste edonork bezalaxe egin baitezakete lan horiek ere. Konfiantza besterik ez dute behar, eta aukera bat ematea.

*Informazio gehiago Arrasateko Kutxa-Zeharo Zentroan (Otalora kalea, 14) 943 71 25 51 telefono zenbakian edo www.begira.com helbidean.*

www.kutxa.net

kutxa

**IKASTAROAK/ IZENEMATEA, BETI ZABALIK**

# “Edozeinek egin dezake capoeira”

CAPOEIRA IKASTARO BI DAUDE ZABALIK DEBAGOIENEAN, ESKORIATZAR BATEN ESKUTIK; HAREN NAHIA DA ARIKETA HORI ZABALTZEA

LEIRE KORTABARRIA

**Borroka-artea, dantza, kirola, jolasa, folklorea... Horiek guztiak eta gehiago da Brasilgo capoeira. Gorputza landuz eta musika entzunez, gure buruarekin eta lagunekin konexio berezia lortzeko modua ere bada. Gurean zale dezente ditu, eta gehiago izateko bidean doa.**



GOIENKARIA

Igor Ezpeleta eskoriatzarrak (argazkian, eskumako capoeirista) eskolak ematen ditu Eskoriatzan eta Oñatin.

Debagoienean badira zenbait capoeira ikastaro, herri baten baino gehiagotan. Iaz Arrasaten izan zen ikastaro labur bat, irakasle brasildar baten eskutik. Eta hilabete batzuez geroztik, 26 urteko eskoriatzar bat, Igor Ezpeleta, ibarreko punta batetik bestera dabil ikastaroak ematen: astelehen eta eguaztenetan Eskoriatzako pilotalekuan eta martitzen eta eguenetan Oñatiko gaztelekuan, 19:15ean. 15 eta 35 urte bitarteko 15 bat laguneko talde bana du. Horrez gain, zenbait gimnasiotan ere eskaini izan dituzte capoeira tailerrak. Brasilgo praktika hori sustraiak botatzen hasia da gurean.

**IZENEMATEA, BETI ZABALIK**

Sarri ikusi izan dugu capoeira erakustaldiren bat telebistan; baita musika entzun ere; izan ere, *zum zum zum* dioen telebista-iragarki bateko musika capoeira musika da. Zaila dirudi benetan, akrobazia konplikatuen pareko mugimendu askorekin. Igor Ezpeletak beldurra galtzera animatzen du: “Ziurtasun osoz esan dezaket edozeinek egin dezakeela capoeira. Edonor joan daiteke mendira, batzuk Aitzorrotzera joaten gara eta beste batzuk Everestera. Baina edonork egin dezake, pausoz pauso eta nork bere mailan. Ez dago aitzakiarik”, dio.

Beldurra eta lotsa gainditu dituzte dagoeneko Igorrek bere esanetara dituen lagunek. Kontua da capoeirak erakargarri asko dituela: “Kirolen bat egin nahi nuen, eta capoeira aukeratu nuen borroka-artea eta dantza batzen dituelako”, dio Oñatin lan egiten duen Miriam bilbotarrak. Bigarren eskola izan du Miriamek joan den astean, eta horixe da capoeiraren beste abantaila bat: edozein une da hasiberriarendako egokia; izan ere, Igor Ezpeletak jendea animatu gura du bat egitera: horretarako, Eskoriatza edo Oñatiko hitzordueta-ra joan edo Igorri 625 77 22 95 telefonora deitu besterik ez dago.



IGOR EZPELETA

Capoeira erakustaldi bat Edinburgon. Igor Ezpeleta hantxe izan zen.

**MUSIKA ETA ABESTIAK**

Ordu eta hiru laurdeneko eskolak ematen ditu Igorrek. Horietan, parte-hartzaileek korroa egiten dute (roda delakoa) eta, beroketa ariketak egin ondoren, hainbat mugimendu lantzen dituzte. Binakako borrokak gero etorriko dira. Hori dena capoeirako musikaren erritmora egiten da; grabaketa baten ordez musika-tresnak erabilita, energia berezia sortzen da, Igorrek dioskunez: berimbaua, panderoa, atabake edo tam-tam antzeko bat… eta capoeiristen abestiak eta txaloak behar dira horretarako.

Igorren 30 ikasleak, nor bere erritmora, gustura asko daude: “Lehen egin ezin zituzten gauzak egiten dituztela diote, eta malgutasuna, indarra eta oreka hobetu dituztela. Batzuk guztiz *engantxatuta* daude, eta beste batzuk bidean daude”.

## Historia pixka bat

**Brasilen esklabo zirenek sortu zuten capoeira, baina lehen idatziak 1770ekoak dira. Jatorriaren gainean misterio handia dago, baina gauza jakina da capoeirak gauza asko esan nahi izan dituela historian zehar: esklaboendako, euren burua defendatzeko modu bat, dantza bat eta, gerora, euren askatasunaren sinbolo izan zen capoeira. Esklabutza indargabetu zenean, 1888an, gangsterren praktika bihurtu zen eta irudi txarra hartu zuen; Brasilen debekatuta egon zen 1920. urtera bitartean.**

**Esanahi kultural eta sinboliko handia du, hortaz, capoeirak. Igor Ezpeletak dioenez, “bakoitzak nahi duen moduan hartu behar du. Nik neuk historiaren nondik norakoak eta musika pixka bat ezagutzea gomendatzen diet ikasleei”.**

## Capoeira zabaltzea, ilusio

**Ni neu ere hasiberria naiz, bi urte inguru daramatzat. Ez da inoiz ikasten bukatzen, beti baitago hobe dezakezun zerbait”, dio Igor Ezpeleta eskoriatzarrak. Beste batzuei irakasten jardutea “sentsazio arraroa” dela onartzen du, eta xalotasunez dio “besteek baino gehiago dakien ikasle bat” baino ez dela.**

**Orain, Ezpeletaren nahia eta ilusioa da capoeira gurean zabaltzea. Hark Edinburgon eman zuen denboraldi bat, eta hantxe hasi zen ikasten. Hango irakasle eta lagunekin hartuemanetan jarraitzen du, eta capoeira Debagoienean hedatzeko asmo politak ditu: martxoan, hango irakasle bat, brasildarra, gurera etorriko da, eta Eskoriatzako eta Oñatiko ikasleek entrenamendu berezi pare bat eta afaritxoa egingo dituzte harekin.**

## Oinarrizko hiztegia

**'CAPOEIRA' HITZA**

**Tupi hizkuntzaz, *kapu'era* hitzak *sasi arteko klaroa* esan nahi du; ustez, horietan egiten zen hasieran capoeira. Beste batzuen esanetan, oso borrokalaria den eper baten izena da *capoeira*. Egiten dituen mugimenduak capoeiralarienen antzekoak ei dira.**

**RODA**

**Parte-hartzaileek egiten duten korroa da. Musika ipini, abestu eta txalo jotzen dute.**

**BERIMBAUA**

**Arku formako soka bakarreko musika tresna da. Capoeirako musika egiteko tresna nagusia da. Beste tresna batzuk dira agogoa, atabaquia, maculelea…**

**SENZALA**

**Brasilgo esklaboak senzala izeneko lekuetan izaten zituzten jaunek. Hortxe jaio zen capoeira.**

**MESTRE BIMBA**

**Capoeirako maisu handienetako bat da, eta hark birmoldatu eta berritu zuen ariketa hori. 1973an Brasilgo presidentearen aurrean egin zuen capoeira, eta Brasilgo lehen eskola sortzeko baimena lortu zuen.**

**IJEXA**

**Capoeira egiteko oinarrizko erritmoa da. Candomblean du jatorria. Geldoa, suabea, lasaia eta dotorea da. Berimbaua joaz egiten da.**

**GINGA**

**Berimbauaren erritmora egiten den gorputz mugimendua, gorputza erlaxatuta eta edozein unetan arerioa saihestu, eraso, kontraeraso edo ihes egiteko moduan egon dadin. “Ginga da capoeiraren arima”, esan zuen Mestre Bimba maisuak.**

**ANGOLA/ESKUALDEKOA**

**Bi capoeira adarrak dira. Angola da jatorrizko capoeira, eta eskualdekoa da Mestre Bimbak sortutakoa. Angola eta zenbait borroka-arteren arteko nahasketa da.**

# Otsailak 18–25

**Leire Kortabarria /** Zuon ekitaldien berri iragarri ahal izateko bidali informazioa eguazteneko eguerdiko 12:00ak baino lehenago • Posta elektronikoa: **kultura@goiena.com** • Tel.: **943 76 03 97** • Faxa: **943 76 29 77**

## DEIAK

### ARETXABALETA

► **Euskal film laburren emanaldia** antolatu du Loramendi elkarteak hilaren 24rako, eguena, udaletxe zaharrean, 21:30ean.

### ARRASATE

► ***Medikuak esan dit minbizia dudala*** delako liburua aurkeztuko du Joxe Arantzabalek hilaren 22an, martitzena, Monterronen, 19:00etan.

► **Emakumearen kontrako indarkeriari** aurre egiteko 1/2004 legearen gaineko berbaldia egingo du Nekane San Miguel epaileak eguaztenean, hilak 23, udaletxean, 19:00etan, emakumeen aurkako indarkeriaren inguruko plataformak antolatuta.

► **Gurasoek aginteari neurria hartzearen** gaineko hitzaldia antolatu du Arrasate Herri Eskolak eguenerako, hilak 24, Bedoñabe eraikinean, 18:00etan.

### BERGARA

► **Zuhaitz eguna** izango da bihar, zapatua. San Martin plazan, baso lanerako tresnen erakusketa eta salmenta izango da 09:30ean; 10:30ean, azoka aurrean autobusa hartuko dute San Martzialen zuhaitzak landatzera joateko.

► **Bertso-afaria** izango da bihar, zapatua, Artatse elkartean, 21:00etan. Xabier Silveira eta Arkaitz Estiballesek parte hartuko dute.

► **Sukaldari bergarar gazteen** zikloa antolatu du Gure Ametsa elkarteak, eta hilaren 24an afaria izango dute. Izenematea zabalik dago hilaren 21 arte.

► ***Bagdad rap*** dokumentala emango du Komite Internazionalistak taldeak eguenean, hilak 24, kultura etxean, 19:30ean. Iraken gainekoa da.

### ESKORIATZA

► **Uretako jolasparkea** izango da etzi, domeka, kiroldegiko igerilekuan, 16:00-20:00. Adin multzo bakoitzarendako ordutegi bat antolatu dute. .

► **Guraso eskola** antolatzen hasiko da udala, eta izenematea zabalik dago otsailaren 28ra bitartean, udaletxean edo kultura etxean. Ordu eta erdiko saioetan, hainbat gai landuko dituzte: dolu egoerak, haurtzaroa eta hizkuntza eta anai-arreben arteko hartu-emanak.

### OÑATI

► **Bertso-bazkaria** izango da bihar, zapatua, Araotzen, eguerdian. Andoni Egañak eta Sebastian Lizasok parte hartuko dute.

► **Errekalde Herri Eskolak** ate ireki jardunaldia egingo du bihar, zapatua, 16:30etik 18:30era. Bideoak, jolasak, tailerrak… egongo dira.

► **Drogomenpekotasunaren prebentzioaren** gaineko hitzalditailerra izango da hilaren 23 eta 24an, Santa Eskolastikako eraikinean, 18:30ean, 12 urte artekoen gurasoendako. Elkar Heziko guraso elkarteak antolatzen du.

► **DBHren ondorengoko aukeretaz** orientazioa emateko hitzaldia egingo du Ana Sanz adituak hilaren 23an, eguaztena, Santa Marinako mediatekan, 19:00etan. DBH 4. eta Batxilergoko ikasleen gurasoendako da. Elkar Heziko guraso elkarteak deitu du.

► **Seme-alaben garapenean sortzen diren zailtasunak** gainditzearen gaineko hitzaldia egingo du Hilario Garrudo psikologoak hilaren 22an eta 24an Txantxiku ikastolan, 18:30ean.

► **Txantxiku ikastolak** aukera ematen die guraso eta seme-alabei 0tik 3ra urte bitarteko umeen gelak ikustera. Bihar, zapatua, izango da jardunaldia, 11:00etatik 13:00etara bitarteko ordutegian.

### ELGETA

► ***El Decamerón*** antzezlana egingo du Ados taldeak gaur, egubakoitza, Espaloia kafe antzokian. 22:30ean hasiko da emanaldia.

### ESKORIATZA

► **Peio Añorga ipuin kontalariak** 5-6 urtetik gorako umeendako emanaldia egingo du eguenean, hilak 24, liburutegian, 18:00etan.

### OÑATI

► ***Marixe*** txotxongilo, dantza eta musika ikuskizuna egingo du Kresala taldeak bihar, zapatua, kiroldegian, 19:00etan. 6 euro da. Errekalde Herri Eskolak antolatzen du.

## ANTZERKIA

### ARRASATE

► **Torpedolevel** taldeak antzezlana egingo du gaur, egubakoitza, Otalora kaleko Gure Leku tabernan, 23:00etan. Sarrera, doan.

## ERAKUSKETAK

### ELGETA

► **Antonio Irisarrik** argazki erakusketa zabalduko du etzi, domeka, Espaloia kafe antzokian. Martxoaren 2ra bitartean izango duzue ikusteko aukera.

## MUSIKA

### ARRASATE

► **Señor No eta Isarevolution** taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 23:00etan. 5 euro da.

► **DJ Nko eta D. Gonzalo Morbid** disko jartzaileen emanaldia egongo da bihar, zapatua, 3.60 aretoan, 03:00etan.

► **5 Kontra eta Noizean Behin** taldeek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

### BERGARA

► **The Toy Dolls eta Gatillazo** taldeek kontzertua eskainiko dute gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. 20 euro da, 18 aldez aurretik erosiz gero.

► **Lukas Prest eta Ketchoop** taldeek joko dute bihar, zapatua, gaztetxean, 22:30ean.

► **Robert Calvin, Karlos Phazer, Mikel E eta Kaiet & Alain** disko jartzaileek emanaldia egingo dute bihar, zapatua, Go Jam aretoan, 01:00etan. Sarrera eta edaria, 10 euro.




► KONTZERTUA

## AFRIKA, FJORD ETA SHARON STONER ZUZENEAN BIHAR, ZAPATUA

Korrika Kulturalaren eskutik, hiru musikari ezagunen emanaldia izango da gaur, egubakoitza, Elgetako Espaloia antzokian. Hain zuzen ere, kontzertua egingo dute Afrika abeslariak, Korrika 14ren egileak; Fjord Arrasateko taldeak (argazkian); eta Sharon Stoner oñatiarrek, Danbaka lehiaketako irabazleek. Lehenengo biek Euskal Herrian barrena jo dute Korrikaren egitarauaren barne, eta gurean, ibarreko beste talde bat entzuteko modua ere izango da. *Euskal Herria euskalduntzen, ni ere bai* izenburupean, aurtengo Korrikaren aldarrikapena Debagoienera ekarriko du Afrikak. Elektronika, rhythm-and-blues eta jazz estiloak uztartzen ditu; Fjord-ek rock eta metal doinuak lantzen ditu, eta Sharon Stonerrek, stoner rocka.

**Non:** Elgetako Espaloia antzokian. **Noiz:** bihar, otsailak 19, zapatua. **Ordua:** 22:30. **Sarrerak:** 8 euro; 6, aldez aurretik.

CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA

**Caja Laboral Popular**
**Coop. de Crédito**
**Lan Kide Aurrezkia**

2005eko Urtarrilaren 31n, Kooperatiba honen Kontseilu Errektoreak hartutako akordioaren arabera, Entitatearen

**Ohiko Batzar Nagusirako**

deia egiten zaie bazkide guztiei, Martxoaren 11n, Arrasateko Amaia Antzokian, arratsaldeko 4 eta erdietan lehen deialdiari erantzunez, eta behar izanez gero bigarren deialdian, arratsaldeko 5etan, toki eta egun berean, honako gai zerrenda aztertzeko:

Gai Zerrenda

1. Bilkuraren akta onartuko duten bazkideen izendapena.
2. 2004. urteko kontuen (txostena, balantzea eta emaitzen kontua) azterketa eta onespena, eta gestio-txostena, indibidualak eta kontsolidatuak eta ikuskarien izendapena.
3. Soberakin garbien banaketa.
4. 2004ko heziketa eta sustapen fondoaren banaketa.
5. Ekonomi erregimeneko estatutu-xedapenak.
6. Kontseilu errektorearen estatutu-berriztapena.
7. Kontu-hartzaileen estatutu-berriztapena.
8. Eskari eta galderak.

Arrasate, 2005ko Otsailaren 18a

**Juan María Otaegui**
Kontseilu Errektoreko Lehendakaria

► **Megadeth eta Diamond Head** taldeen emanaldia egongo da hilaren 24an, eguena, Jam aretoan, 20:00etan. 28 euro da.

## IKUSKIZUNAK

### ARRASATE

► ***Jon Plazaola eta Kulturisten Kofradia*** showa izango da gaur, egubakoitza, 3.60 aretoan, 23:00etan.
► **III. Kante Flamenko txapelketako finala** jokatuko dute bihar, zapatua, Amaia antzokian, 19:00etan. Al Andalus kultura elkarteak antolatzen du.
► ***Trikitraka Trikitron*** saioa grabatuko dute Txirri, Mirri eta Txiribiton pailazoek hilaren 21 eta 22an, astelehena eta martitzena, Amaia antzokian, 19:00etan.

### ELGETA

► ***Arrakalak* film labur, poesia eta musika** emanaldia egingo du BBK taldeak eguenean, hilak 24, Espaloia antzokian, 20:00etan.

## IKASTAROAK

### ARRASATE

► **Yoga eskolak** ematen ditu Sanatana Dharma Yoga Eskolak: astelehen eta eguaztenetan, 09:30-11:00 (635 71 06 16, Maite), eta martitzen eta eguenetan, 18:45-20:15 (943 78 31 26, Ana).
► **Biodantza ikastaroa** antolatu du Arrasate Yoga Elkarteak, eguaztenetan. Argibideetarako, deitu 679 44 12 29 telefono zenbakira.

### BERGARA

► **Lanean diharduten lagunendako** doako ikastaroak antolatu ditu Miguel Altuna institutuak. Hain zuzen, fresatzaile programazioko bi ikastaro eta CAM Unigraphic ikastaroa emango dituzte. Izenematea zabalik dago.
► **Ardo-dastatze** ikastaroa egingo dute martxoaren 18an. Doan da. Izenematea zabalik dago martxoaren 8ra bitartean, 943 77 91 59 telefonoan.

### OÑATI

► **0-2 urteko umeen larrialdiei** aurre egiten jakiteko sorospen ikastaroa izango da bihar, zapatua. Pediatra batek emango ditu argibideak. Elkar Hezi ikastetxeak antolatzen du. Bi orduko ikastaroa izango da. Izena emateko, deitu 943 78 05 11 telefonora.

# Zinema

### ARAMAIO

■ **KULTURA ETXEA**

***El bosque***
Egubakoitza: 22:30.

### ARRASATE

■ **AMAIA ANTZOKIA**

***El aviador***
Egubakoitza: 22:00.
Domeka: 19:30.

***El niño que quería ser un oso***
Domeka: 17:00.

***El abrazo partido***
Eguena, zinekluba: 20:30.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### BERGARA

■ **NOVEDADES**

***Alejandro Magno***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 16:30, 19:30, 22:30.
Domeka: 16:30, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30.

***Beautiful boxer***
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### ELGETA

■ **ESPALOIA**

***Tiempos modernos***
Domeka: 17:30.

***Nueve reinas***
Eguaztena: 21:30.

### OÑATI

■ **KULTURA ETXEA**

***Closer***
Egubakoitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:30.
Astelehena: 19:30.

***El niño que quería ser un oso***
Zapatua: 17:00.
Domeka: 17:00.

***Bagdad rap***
Eguena, zinekluba: 20:00.

Astelehena, ikuslearen eguna.

### EIBAR

■ **UNZAGA**

***Ray***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena, martitzena eta eguaztena: 19:30, 22:15.

Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **RIALTO**

***Largo domingo de noviazgo***
Egubakoitza: 19:30, 22:15.
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena eta martitzena: 19:30, 22:15.

Martitzena, ikuslearen eguna.

### GASTEIZ

■ **GURIDI**

***Los padres de él***
17:30, 20:00, 22:30.

***Constantine***
17:30, 20:00, 22:30.

***Drowning ghost***
17:30, 20:00, 22:30.

***El vuelo del fénix***
17:00, 22:30.

***El aviador***
19:15.

***Ray***
19:15.

***5 x 2 - Cinco veces dos***
17:00, 20:45, 22:30.

***White noise - Más allá***
17:00, 22:30.

***Million dollar baby***
Zapatua eta domeka: 17:00, 19:45, 22:30.

***León y olvido***
18:45.

■ **MIKELDI ZINEMAK**

***Los padres de él***
17:30, 20:15, 22:45.

***Bob esponja***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***White noise - Más allá***
17:30, 20:15, 22:45.

***Entre copas***
17:15, 20:00, 22:30.

***Constantine***
17:30, 20:15, 22:45.

***El aviador***
19:15, 22:30.

***2046***
17:15, 20:00, 22:30.

***Los increíbles***
Zapatua eta domeka: 17:15.

***María, llena eres de gracia***
17:30, 20:15, 22:45.

***Mar adentro***
17:20, 19:50, 22:35.

***Conociendo a Julia***
Egubakoitza: 17:15, 20:00, 22:30.
Zapatua eta domeka: 20:00, 22:30.

Martitzena eta eguena, ikuslearen eguna.

■ **FLORIDA-GURIDI**

***Descubriendo Nunca Jamás***
17:30, 20:00, 22:30.

***Entre copas***
17:30, 20:00, 22:30.

***La casa de las dagas voladoras***
17:00, 19:45, 22:30.

***Para que no me olvides***
17:00, 19:45, 22:30.

***Largo domingo de noviazgo***
19:30.

***El hundimiento***
17:00, 19:45, 22:30.

***Amor idiota***
17:00, 21:00.

***Los chicos del coro***
17:30, 22:30.

***Domicilio privado***
19:00, 23:00.

■ **ÁBACO-LAKUA ZINEMAK**

***Llamada perdida***
19:30, 22:20, 00:45.

***El grito***
16:00, 18:10, 20:15, 22:30, 00:45.

***Electra***
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

***La masacre de Toolbox***
16:00, 18:05, 20:10.

***El aviador***
16:00, 19:30, 23:00.

***El vuelo del fénix***
16:45, 19:30, 22:20, 01:00.

***Alejandro Magno***
19:30, 23:00.

***Obsesión***
20:10, 22:30, 01:00.

***Ocean's twelve***
22:15, 00:45.

***Taxi: derrape total***
16:00, 18:05.

***Los increibles***
17:00.

***White noise - Más allá***
16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:45.

***Sky captain***
17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

■ **YELMO CINEPLEX-GORBEIA**

***Constantine***
12:15, 16:00, 18:15, 20:30, 22:45, 01:00.

***Spanglish***
12:15, 16:30, 19:15, 22:00, 00:45.

***Los padres de él***
12:15, 16:00, 18:10, 20:25, 22:40, 00:55.

***Million dollar baby***
12:15, 16:15, 19:00, 21:45, 00:30.

***Descubriendo Nunca Jamás***
12:15, 16:30, 18:30, 20:30, 22:30, 00:30.

***El vuelo del fénix***
12:15, 16:00, 18:10, 20:20, 22:30, 00:40.

***White noise - Más allá***
12:15, 16:20, 18:20, 20:20, 22:20, 00:20.

***Alejandro Magno***
12:15, 16:30, 20:00, 23:30.

***Bob esponja***
12:15, 16:25, 18:25, 20:25.

***El niño que quería ser un oso***
12:15, 16:40, 18:40.

***Lemony Snicket***
12:15, 16:15, 18:20.

***Polar express***
12:15, 16:05.

***Los increíbles***
12:15, 16:20.

***La búsqueda***
18:05, 20:45, 00:00.

***El aviador***
20:15, 23:45.

***Obsesión***
22:25, 00:45.

***Electra***
12:15, 16:10, 18:10, 20:10, 22:10, 00:10.

***Closer***
20:30, 22:40, 00:50.

***El grito***
18:35, 20:35, 22:35, 00:35.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Astelehena, ikuslearen eguna (jaiegunak izan ezik).

■ **ÁBACO BOULEVARD**

***Constantine***
12:20, 17:10, 20:00, 22:30, 01:00.

***Spanglish***
12:00, 16:30, 19:30, 22:15, 01:00.

***El vuelo del fénix***
12:20, 17:15, 20:00, 22:20, 00:45.

***White noise - Más allá***
12:20, 16:15, 18:20, 20:30, 22:40, 01:00.

***Descubriendo Nunca Jamás***
12:20, 16:10, 18:20, 20:30, 22:45, 01:00.

***Dos espías supersecretos***
12:00, 16:00, 18:00, 20:00.

***Million dollar baby***
12:00, 16:25, 19:30, 22:10, 01:00.

***Los padres de él***
12:20, 17:05, 19:45, 22:05, 00:45.

***Electra***
12:15, 16:05, 18:15, 20:25, 22:35, 00:45.

***Bob esponja***
12:00, 16:00, 17:50.

***Largo domingo de noviazgo***
19:45, 22:25, 01:05.

***Closer***
12:00, 16:00, 18:10, 20:20.

***Los chicos del coro***
20:00, 22:00, 00:30.

***El aviador***
23:05 (egubakoitza eta zapatua), 22:30 (domeka).

***Alejandro Magno***
23:00 (egubakoitza eta zapatua), 22:00 (domeka).

***Los increíbles***
12:15, 17:00.

Gauerdiko saioak, egubakoitzean eta zapatuan.
Eguerdiko saioak, domekan.
Eguaztena, ikuslearen eguna.

***El bosque:* ●●●● / *El aviador:* ●●●● / *Closer:* ●●● / *Mar adentro:* ●●● / *Alejandro Magno:* ●● / *Ocean's twelve:* ●● / *Conociendo a Julia:* ●●**

ESKASA:● BALEKOA:●● ONA:●●● OSO ONA:●●●● BIKAINA:●●●●●

## KRITIKA

### DESCUBRIENDO NUNCA JAMAS

PUNTUAZIOA: ●●●●

**ZUZENDARIA:** Marc Foster.
**AKTOREAK:** Johnny Depp, Kate Winslet, Julie Christie.

Marc Foster-en *Monster's Ball* filma ikuslearen gogoan denbora luzea irauten duen film horietakoa zen. Hark zuen indar dramatikoak ia mingarriak egin zituen irudiak. Orain, *Descubriendo Nunca Jamas*-ekin argi erakusten digu baduela ahalmena oso tonu desberdineko istorioak kontatzeko. Sentimenduei buruz hitz egiten duten bi film horietan, zuzendaria epeltasunez hurbiltzen da pertsonaiengana, *Monster's Ball*-en modu errealistagoan, eta *Descubriendo Nunca Jamas*-ekin, ipuinak kontatzeko erabiltzen den tonuarekin.

*Descubriendo Nunca Jamas*-en abiapuntua Allan Knee-ren antzezlan baten oinarritzen da, eta J. M. Barrie idazleak alargun gazte bat eta haren lau semeak ezagutzen dituen garaian kokatzen da. Barrie oso ondo konponduko da familia guztiarekin, amamarekin izan ezik, eta haurren jolas-lagun bihurtuko da. Horiekin izango dituen harremanak *Peter Pan*, haur-literaturaren arloan sortutako pertsonaia ezagunetariko bat, sortzeko inspirazioa emango dio. Filma, batez ere, bizitzan dauden bi osagai garrantzitsuei buruz aritzen da: errealitatea eta fantasia, eta bien artean sortzen diren gatazkei buruz, hain zuzen ere. Barrie eta haurrak amets egiteko eta irudizko mundu bat sortzeko ahalmena dutenen ordezkariak dira, eta beste aldean, alargun gaztearen amak eta Barrieren emazteak (ezin du idazlearen mundu horretan sartu) gizakiaren alde errealista ordezkatuko dute. Foster-ek ederki deskribatzen daki bi ikuspuntuak, eta gizatasuna ematen die pertsonaia guztiei. Aktoreak oso ondo zuzenduak daude; konplizitatea nabarmena da aktore nagusi eta haurren artean; hala, eszena benetan hunkigarriak eta liluragarriak sortzen dira: *Peter Pan* obraren estreinaldia, umeak antzokian helduekin nahastuta, alargun gazteentzat egiten den antzezlan berezia, eta Barrieren eta Peter-en arteko azkeneko elkarrizketa, esate baterako.



*Descubriendo Nunca Jamas*-en xarma bere txikitasunean datza, istorio apal bat kontatzen digu, baina hori bai, magiaz, xumetasunez eta malenkoniaz beterik. Agian, filmak ez du gauzak izan ziren moduan kontatzen, baina horrela gertatu izatea nahiko genukeen.

ANTONIO ZABALA



OSCAR 2004 . URTEBETEAN ZINEMA DOAN
ZE FILMEK IRABAZIKO DUEN ASMATUTA, URTEBETERAKO DOAKO PASEA IRABAZTEKO AUKERA IZANGO DUZU
1.- El Aviador 2.- Descubriendo Nunca Jamás 3.- Million Dollar Baby 4.- Ray 5.- Entre copas
BIDALI SMS BAT 7744ra TESTU HONEKIN: ABACOSCAR_FILM ZBK_HERRIA
ÁBACO Boulevard eta ÁBACO Lakua. Mezuaren kostua: 0,90 + BEZa . Informazio zabalagoa eta OINARRIAK : www.cinesabaco.com



**SARE İNMO f3 inmobiliaria**
Erdiko kalea 26
ARRASATE
943 79 12 79

**SALGAI**

**ANTZUOLA**
- 54 $m^2$. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena berrituta. 28.500.000 pta.
- Etxebizitza ederra salgai. Berriki eraikia. 84 $m^2$. Hiru logela, egongela, sukaldea, bi bainugela, despentsa eta garaje itxia. Eguzkitsua. 80 $m^2$ko terrazarekin.

**ARRASATE**
- Erdialdean, Iturriotz kalean. 70 $m^2$. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Dena berrituta. Estreinatzeke.
- Erguin auzoan. 55 $m^2$. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Eguzkitsua. 31.900.000 pta.
- Arimazuri plazan. 67 $m^2$. Bi logela, egongela, sukaldea eta bainugela. Berogailua, igogailua eta trastelekua. Eguzkitsua. Oso egoera onean.
- Santa Teresa auzoan. 59 $m^2$. Bi logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 6 $m^2$ko sotoa. 29.800.000 pta.

**ARETXABALETA**
- 50 $m^2$. Bi logela, egongela, sukaldea, bainugela eta trastelekua. Egoera onean. Eguzkitsua.

**Etxebizitza berrien promozioa ANTZUOLAn. Zatoz eta erosi!**

**Korosti INMOBILIARIA**
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
Santi Kutz 8 • LEGAZPI
Tel.: 943 73 05 25

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
**Bergara:**
- Erdialdea 80 $m^2$. Eguzkitsua.
- Martoko 85 $m^2$. Eguzkitsua.
- Zubiaurre 45$m^2$. Berrituta.
- San Pedro 150$m^2$. Ondo.
- Zubieta 70 $m^2$. Eguzkitsua.

**Antzuola:**
- Hamaika etxebizitza eraikin berrian. Garajea aukeran.
- Erdialdea 84 $m^2$. Garajea.

**ETXEBIZITZA ERRENTAN**
**Jaka:**
- Apartamendua errentan.

**BASERRIAK SALGAI**
- Elosun, Angiozarren, Soraluzen eta San Juanen.

**LOKALAK ETA GARAJEAK**
**Salgai eta errentan.**

**DEBA GARAIA INMOBILIARIA**
Telesforo Aranzadi 2
T: 943 76 21 80 F: 943 76 06 37
Zarugalde 1 Arrasate
T: 943 77 13 02 F. 943 73 12 40

**ETXEBIZITZAK SALGAI**
BERGARA:
- Erdialdea 72 $m^2$. Oso ondo. Ganbara
- Masterreka 75 $m^2$. Berrituta.
- Erdialdea 90$m^2$. Oso ondo dago.
- Erdialdea 78 $m^2$. Berrituta.
- Erdialdea 75 $m^2$. Ondo dago.
- Zubiaurre 45 $m^2$. Erdi berriztua.
- Matxiategi 90 $m^2$. Begialde ona.

ANTZUOLA:
- 11 etxebizitza berri.

SORALUZE:
- Errekalde 82 $m^2$. Ondo dago.
- Rabal 42 $m^2$. Ondo dago.
- Ezozi 83 $m^2$. Ondo dago.

DEBA:
- 73 $m^2$. Itsasora begira.

**BASERRIAK**
- Angiozar 600 $m^2$ eta lursaila.
- Elosua 246 $m^2$. Egoera onean.

# Iragarki sailkatuak

**943 76 92 71 edo *sailkatuak@goiena.com***

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Antzuola.** Bi logela, egongela, komuna, sukaldea eta berogailua kanalizatuta. Dena berritua. 169 mila euro. 627 21 87 49.

**Antzuola.** Hiru gela, egongela, sukaldea, bainugela eta igogailua. 157.000 euro. Deitu 18:00etatik 22:00etara, mesedez. 943 78 70 75.

**Aramaio.** 174 $m^2$. Hiru logela, estudioa eta komuna. Berrituta dago. 945 44 50 12.

**Aretxabaleta.** 180 $m^2$ dituen txaleta salgai. Etxe agentziok, ez deitu. 609 48 99 58.

**Aretxabaleta.** Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela eta balkoi bi. Eguzkitsua. 943 79 02 61.

**Arrasate.** 160 $m^2$ dituen etxebizitza salgai Uribe inguruan. Kanpoaldera ematen du. Teilatupearekin etxebizitza lotzeko aukera. Jardin pribatua dauka. Bi garaje erosteko aukerarekin. 686 04 65 41 edo 628 53 27 78.

**Arrasate.** Agerre kalean etxebizitza salgai. 649 55 48 10.

**Arrasate.** Etxebizitza salgai San Andresen. 97 $m^2$. Jantzia. Hiru logela, bi komun. Igogailua. 636 34 77 08 edo 667 53 89 66.

**Arrasate.** Sukaldea, egongela, bainugela eta hiru logela. Bi terraza ditu. Erguin auzoan dago. 615 75 04 72.

**Bergara.** Osintxun, 115 $m^2$-ko etxea salgai. Telefonoa: 654 34 25 42.

**Bergara.** Ozaeta kalean etxebizitza salgai.

Sukaldea, sala, bi logela, bainua eta jantzitegi handi bat. Aparkalekua, eta etxearen kanpoaldean berdegunea. 605 73 71 90.

**Bergara.** Zubiaurre kalean etxebizitza salgai. Bi logela, sukaldea jangela eta sala. 943 76 71 93.

**Oñati.** Zubillaga auzoan. Beheko solairua. Bi logela, sukaldea, bainugela, egongela, trastelekua eta ganbara. 943 78 32 92.

**Soraluze.** Etxe berritua salgai. Garajea, goi solairua, txokoa, komuna eta sukalde jantzia. 144 $m^2$. 615 77 99 20.

### 102. EROSI

**Donostia.** Etxebizitza erosiko nuke. Kanpoaldera ematen duena. 70 $m^2$. 300.000 euro arte ordainduko nuke, obrarik behar izanez gero. 943 29 03 51.

### 103. ERRENTAN EMAN

**Aretxabaleta.** Hiru logela, bainugela, egongela eta sukaldea. Guztiz hornituta dago. Bertan bizitzen hasteko moduan. Telefonoa: 675 00 56 45.

**Benidorm.** Apartamentua igerileku eta aire girotuarekin, hondartza ondoan. 666 18 53 87.

**Benidorm.** Etxe jantzia, hondartza ertzean. Parkingarekin. 630 41 84 65.

**Conil.** Apartamentua alokagai daukat Bateles hondartzaren ondoan. Jantzita dago. 680 44 26 68.

**Costa Sancti Petri** Chiclana (Cadiz). Apartamentua errentan. La Barrosa hondartzatik oso gertu. Deitu telefono honetara: 616 14 65 54 edo 678 78 39 10.

**Peñiscola.** Apartamentua. Hondartzatik gertu. Instalazio pribatuak. Guztiz jantzita. 610 87 83 57.

**Salou.** Apartamentua alokagai daukat Novelty eraikinean, Jaime I pasealekuan. Jantzia. Garajea. 629 98 98 99 edo 943 81 42 38.

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Anaia brasildar batzuek etxebizitza bat errentan hartu nahi dute. 676 29 10 22.

**Debagoiena.** Familia alemaniar batek bi urterako etxebizitza errentan hartuko luke. 660 83 78 55.

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate, Bergara.** Etxebizitza osatzeko pertsona prest. 636 17 67 98.

### 106. BESTELAKOAK

**Aretxabaleta.** Logela ematen dut errentan. Telefonoa: 653 70 14 83.

## 2/ GARAJEAK

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Larrea aldean. Bi autorendako lekua. Gauez deitu, 21:00etatik 22:00etara. Telefonoa: 946 81 94 51.

**BERGARA**

**Super 8-tik bideora eta edozein bideo fomatotatik dvd-ra kopiak egiten ditugu.**

**Islada multimedia.**
**Telleria 6, 6. bulegoa.**
**943 76 33 56**

**Arrasate.** Garaje itxia ematen da errentan Obenerrekan. Bi autorendako lekua. Gauez deitu, 21:00etatik 22:00etara. 943 79 69 41.

## 4/ LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Arrasate.** Bi ume zaindu eta etxeko lanak egiteko pertsona bat behar da. 943 77 19 74 edo 635 72 52 65.

**Arrasate.** Ume bat zaintzeko emakume bat behar da. 699 04 48 47.

### 402. ESKAERAK

**3.500 kiloko kamioia** gidatzeko prest. Euskal Herri osoan. 666 40 65 19 edo 943 79 74 56.

**Antzuola.** Emakumea gertu Antzuola inguruan edozein lan egiteko. 699 31 91 89.

**Aretxabaleta.** Emakume bat etxeko lanak egiteko prest. 635 73 20 36.

**Aretxabaleta.** Etxeak eta atariak garbituko nituzke. 605 72 18 23.

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu umeak zaindu, etxeko lanak egin edo pertsona nagusiak gauez edo egunez zaintzeko. 659 82 75 18.

**Arrasate.** Emakumea gertu etxeetan garbiketa lanak egiteko, orduka. 639 50 77 47.

**Arrasate.** Esperientziadun kamio eta autobus gidaria lanerako prest. 600 65 33 98.

**Bergara.** Emakume batek pertsona nagusiak zainduko lituzke. 943 85 31 21 edo 629 80 77 73.

**Bergara.** Esperientziadun neska batek haurrak zainduko lituzke. 943 76 02 19.

**Bergara.** Irakasle ikasketak egiten ari den neska eskolak emateko prest. Arratsaldeetan umeak zainduko lituzke. 943 76 01 94.

**Debagoiena.** Administrari batek egun erdiz lan egingo luke. Ofimatika erabiltzen daki. Ingelesa eta alemana daki. 660 83 78 55.

**Debagoiena.** Esperientziadun emakume bat gertu dago etxeko atariak garbitzeko. 943 77 06 74.

**Debagoiena.** Mutil gaztea edozein lan egiteko gertu dago. 676 29 10 22.

**Debagoiena.** Mutila lanerako gertu. Etxezain, mantentze-lanetan edo lorezain. 685 77 23 72.

**Debagoiena.** Sukaldaritza ikaslea naiz. Lan egin nahi nuke eguen, egubakoitz eta zapatu gauetan eta domeketan. 606 36 29 27.

## 5/ IRAKASKUNTZA

### 502. EMAN

**Aretxabaleta.** Ingelesezko eskola partikularrak ematen dira. 943 79 03 83.

**Arrasate.** Goi mailako ingeniari industrialak eskola partikularrak ematen ditu. Esperientzia. Maila guztiak. Hainbat ikasgai. 630 71 35 83.

**Arrasate.** Lehen Hezkuntzako behar bereziak dituzten umeei laguntza eskolak emango nizkieke. Telefonoa: 645 73 04 69.

## 6/ MOTORRA

### 601. SALDU

**Autokarabana.** Osagarri asko. 90.000 kilometro. Zortzi urte. 679 44 60 75.

**BMW** 318 I autoa; ordezko piezekin. 616 04 13 42.

**Citroen** Picasso 1.800 salgai. 3 urte. 30.000 km. 665 75 42 40.

**Ford** Mondeo familiarra salgai. Turbo diesela. 7.500 euro. 618 02 02 58.

**Ford** Fiesta 1.1 salgai. SS-AP. 86.000 km. Ondo dago. 652 76 40 37.

**GAC** Onix Coma motorra salgai. 49 $cm^3$. 100 euro. 943 78 23 90 edo 655 74 48 85.

**Gas-Gas** enduro motorra salgai. 250 $cm^3$. 2002. urtekoa. Matrikulatua. Egoera onean. Jon. 943 79 23 34.

**KTM** motorra salgai. 125 $cm^3$. Bi motorrendako karroarekin. 656 71 32 47.

**Nissan** Primera autoa salgai. 1992koa. Granatea. Aire girotua, aluminiozko hagunak (llantak), kristal-igogailu elektrikoa. Gasolinazkoa. Ondo dago. 1.500 euro. Telefonoa: 646 09 52 44.

**Opel** Kadett 1.6 S autoa. 1.000 km. Ondo dago. 607 91 15 37.

**Opel** Vectra 2.0 GT autoa salgai. SS-AF. 661 82 40 49 edo 645 71 95 69.

**Peugeot** 306 1.4 autoa salgai. Hiru ate eta eguzki-sabaia. Egoera onean. 2.000 euro. 653 70 86 77.

**Peugeot** 206 1.9. Diesel XRD salgai. Gorria da eta 2000koa. 144.000 kilometro ditu eta oso egoera onean dago. 620 54 57 61.

**Peugeot** 306 XSdt automobila salgai. BI-CJ matrikula. Haritz. 609 36 87 61.

**Renault** Trafic Combi 1.9 dci furgoneta salgai. 100 ZP. 2004koa. 13.000 km. Autokarabana moduan prestatzeko gertu. 17.000 euro. Utzi mezua. 943 71 98 11.

**Suzuki** GS 500 motorra salgai. 635 71 78 46.

**Volkswagen** Passat. 130 zaldi, TDI, High Line metalizatua. Xenonezko faroak, sei CDrendako irratia eta esku libreko kit-a. 10.500 km. 629 43 38 81.

**Yamaha** VR 250 F4T motorra. Matrikula: 3519 BRR. 2002koa. Oso ondo dago. (Jabi). 943 79 89 82 edo 665 75 03 73.

**Yamaha** XT 350 trail motorra salgai. IAT orain pasatuta. Egoera onean. Telefonoa: 686 97 62 75.

### 602. EROSI

**Bigarren eskuko** furgoneta bat erosiko genuke. Deitu 19:00etatik aurrera. Telefonoa: 943 76 13 78.

**Furgoneta** erosi nahi genuke. Marokora bidaia bat egiteko bost lagunentzako furgoneta behar dugu. 800 eurotik beherako bat erosteko prest gaude. 943 78 61 92.

## 7/ ANIMALIAK

### 701. SALDU

**Arratoi-txakurra** salgai. Bi hilabete eta erdiko txakurkume arra da. 943 76 09 80.

**Txakurra.** Yorkshire bat da. Hilabete bi ditu eta arra da. 617 80 26 20.



Garbi S.L.

**PIPIEN, TERMITEN, ETA ABARREN AURKAKO TRATAMENDU ANTIXILOFAGOAK EGURREAN, ALTZARIETAN, ETA ABARRETAN.**

**943 33 18 37 (HERNANI)**
**649 84 67 09 (BERGARA)**

## 8/ DENETARIK

### 801. SALDU

**Fotokopiagailua** salduko nuke. Minolta EP 2010 modeloa. 637 82 05 54.

**Frijigailu eta lapiko** industrialak salgai. 300 pertsonarendako. 666 40 65 19 edo 943 79 74 56.

**Karabana** salgai. TEC marka. Lau lagunendako, prezio interesgarria. Deitu 21:00etatik aurrera. 943 76 12 29.

**Logela** bateko altzariak salgai, 90 cm-ko bi ohe eta armairua. Gainera, egongelarako armairua eta sofa ere salgai. Prezio ona. 943 76 53 16.

**Musika-katea.** Bi bozgorailu eta altzaria barne. Manchester eta Milan futbol taldeen kamiseta bana ere saltzen ditut. Estreinatzeke. (Rufino). 943 78 04 96.

**Oñati.** Animaliak garraiatzeko karro bat salgai. 1.800 euro. 637 58 78 24.

**Tronboi** irristailuduna salgai. Deitu 21:00etatik aurrera. 943 78 30 21.

### 802. EROSI

**Txanponak eta billeteak.** Edozein motatakoak erosiko nituzke. Bila joan naiteke. 945 44 50 44.

### 806. GALDU

**Eskularrua** galdu nuen Aretxabaletako Portasolgo parke inguruan. Aurkitu baduzu deitu, mesedez. Eskerrik asko. 629 56 71 76.

**Ezkontza-eraztuna** galdu nuen Urkulun aurreko domekan. Jartzen du 2000.07.22. Josune. 680 63 47 08.

**Kapela** beltza galdu nuen Aretxabaletan otsailaren 13an. Erdialdetik Portasolera bidean. 629 10 41 31.

### 807. AURKITU

**Giltza** batzuk aurkitu nituen Arrasateko Larrea plaza inguruan. Opeleko giltzatako bat dute. Udaltzaingoan utzi ditut.

**0000 km**

**Mondeo**
**C-Max**
**Fiesta**

MUGARRI
Araba Etorbidea, z/g
ARRASATE
www.mugarri.es

Ford
gozatzeko pentsatuak
irauteko eginak

LAN ESKAINTZA

**Goiena Komunikazio Zerbitzuak kooperatibak**

**KOMERTZIALA**

**behar du aldi baterako lan egiteko.**

Baldintzak:
- Euskaraz ondo jakitea.
- Gidabaimena edukitzea.
- Debagoiena ezagutzea.
- Esperientzia izatea kontuan hartuko da.

Interesatuok bidali curriculuma helbide honetara:
Goiena Komunikazio Zerbitzuak
Nafarroa etorbidea 2
20500 ARRASATE
edo posta elektronikoz:
admi@goiena.com

Curriculumak aurkezteko azken eguna:
**2005eko otsailaren 25a**

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak



Lacetti

Auto bera, merkeago.
2004ko stockaren likidazio eskaintzak

IBILGAILU berriak

www.chevrolet.es

GIAUTO Gipuzkoa Autoak
Otaola Etorbidea, 27 - Eibar - Tel.: 943 70 08 41
Karobi industrialdea z/g - Olaberria - Tel.: 943 88 51 50

CHEVROLET



**Matilde Parra** eta **Jose Berrio** arrasatearrek bihar, zapatua, urrezko ezteiak ospatuko dituzte. Bazkaria Garagartzako Arteagan egingo dute, eta euren senitartekoekin ospatuko dute. Zorionak, familiaren partetik, eta ondo pasa!



**Josefina Gomez** eta **Pedro Gordejuela** Arrasaten bizi dira, eta duela 41 urte ezkondu ziren. Errioxako Albelda herrian ezkondu ziren, 1964ko otsailaren 15ean. Zorionak, familia osoaren partetik!



**Mertxe Saiz** arrasatearra eta Elgetako **Eloy Irazabal** Margarita Uhartean (Venezuela) ezkondu ziren, orain dela 25 urte. Zapatuan, otsailaren 19an, bazkaria egingo dute Matikuan. Zorionak, bioi, familiaren partetik!

## HILDAKOAK

**Faustino Romero Martinez.** Eskoriatzan, otsailaren 9an. 74 urte.
**Juli Izurrategi Gaztañaga.** Eskoriatzan, otsailaren 9an. 94 urte.
**Lorenzo Alvarez Pedrón.** Aretxabaletan, otsailaren 9an. 86 urte.
**M. Rosario Eguren Urkiola.** Bergaran, otsailaren 9an. 75 urte.
**Jose Ugarte Retana.** Oñatin, otsailaren 10ean. 91 urte.
**Angel Osa Oruesagasti.** Bergaran, otsailaren 11an. 75 urte.
**Eusebio Garitaonaindia Lizarralde.** Arrasaten, 11n. 66 urte.
**Juli Astiazaran Leturia.** Oñatin, otsailaren 11n. 85 urte.
**Andres Gallastegi Gaztelu.** Bergaran, otsailaren 13an. 78 urte.
**Bizenta Agiriano Argarate.** Arrasaten, otsailaren 15ean. 81 urte.
**Enrique Barrutiabengoa Uribetxeberria.** Bergaran, 15ean. 86 urte.
**Martina Isasi-Isasmendi Ezkurra.** Ezkoriatzan, 15ean. 90 urte.

### ESKER ONA

**Jon
Galartza Zulueta**

Oñatin hil zen 2005eko otsailaren 7an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

Antzuolan eta Oñatin, 2005eko otsailaren 18an.

### ESKER ONA

**Eugenia
Arenatza Urizar**

Arrasaten hil zen 2005eko urtarrilaren 26an, 85 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.

—

*Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela
orainak ere geroan.*



Aretxabaletan, 2005eko otsailaren 18an.

### ESKER ONA

**Pedro
Larrinaga Gastañaga**

Arrasaten hil zen 2005eko otsailaren 8an, 82 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Arrasaten, 2005eko otsailaren 18an.

### ESKER ONA

**Maria Rosario
Eguren Urkiola**

Bergaran hil zen 2005eko otsailaren 9an, 75 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko sendikoen izenean.



Bergaran, 2005eko otsailaren 18an.

### ESKER ONA

**Juli
Izurrategi Gaztañaga**
Joakin Kortazarren alarguna

Eskoriatzan hil zen 2005eko otsailaren 9an, 94 urte zituela.

Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak
bidali zenizkigutenoi,
eskerrik asko familiakoen izenean.



Eskoriatzan, 2005eko otsailaren 18an.

### URTEURRENA

**Juan
Urtzelai Angiozar**

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 20an,
12:00etan,
Eskoriatzako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

**Jose
Goikoetxea Agirreolea**

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 20an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

**Tomasa
Zabaleta Larrañaga**

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 20an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

### URTEURRENA

**Jose Lorenzo
Iglesias Fernandez**

Lehen urteurreneko meza
domekan, otsailaren 20an,
12:30ean,
Bergarako San Pedro elizan.



Elizkizunetara joango zaretenoi,
aldez aurretik eskerrik asko sendikoen izenean.

Eskela, urteurren meza edo
eskertzarik jarri nahi baduzu,
etor zaitez GOIENKARIAren
ordezkaritzetako batera.

GOIENKARIA
Astero 18.500 etxetan.
Eskelen prezioa: 82 €.

## IRAGARPENA

**ZAPATUA, 19** / Max.: 8º / Min.: 4º



Zerua hodeitsu edo oso hodeitsu egongo da eta prezipitazioak arin-ertainak izango dira. Iparraldeko haize ahul-bizia izango da, tarte gogorrekin mendi inguruetan. Tenperatura maximoa egonkor mantendu eta minimoa, berriz, zertxobait igoko da.

**DOMEKA, 20** / Max.: 7º / Min.: 3º



Zerua hodeitsu egongo da eta prezipitazio ertainak izango dira. Elur-maila 900-1.000 metroan egongo da, eta gauean 400-500 metrora jaitsiko da. Iparraldeko haize ahul-bizia ibiliko da tarte gogorrekin. Tenperatura egonkor mantenduko da, eta gauean zertxobait jaitsiko da.

## WWW.EUSKALMET.NET

# Eguraldia, 'euskalmet.net' webgunean

Euskalmetek, Euskal Meteorologia agentziak, esku artean duen informazio guztia denbora errealean eskaintzen du ***www.euskalmet.net*** webgunean.

Euskalmetek meteorologiaren eta klimatologiaren gaineko informazioa erabiltzaileen esku utzi gura du . Horregatik eratu zuen *www.euskalmet.net* webgunea. Horri esker, Interneteko erabiltzaile guztiek dute aukera meteorologiaren gainean sortzen zaizkion edozein galdera argitzeko. Eguraldiaren aurreikuspena, itsasoaren egoera, tenperatura, urtean egindako euri kantitatearen zenbatekoa...Orri nagusitik abiatuz, informazioa modu ordenatu eta garbian eskaintzen du, gainera, euskalmetek.

Menu nagusiak sei atal ditu. Bakoitzean, metereologiaren eta klimatologiaren gaineko datuak daude. Hemeroteka, gela birtuala, iragarpen datuak...Horrez guztiaz gain, *www.euskalmet.net* webguneko orri nagusian, datu meteorologikoen kontsulta azkarra egiteko informazioa azaltzen da.

Honako erakunde hauek emandako informazioa:

euskalmet
euskal meteorologi agentzia

aurrera doan herria — un país en marcha
EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO
GARRAIO ETA HERRI LAN SAILA — DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y OBRAS PUBLICAS

**www.euskalmet.net**


## HITZGEZIDUNAK

**Luma**

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | Toki honetan / Sama, iduna | | *Izena / Arrisku | | Arazo, gatazka |
| | | | | | | | |
| | | | Janari multzo / Hezi | | | | |
| Areto / Irisaren erdigune | | Galde-tzaile / Galiako herritar | | | | Kontsonante a / Gurata | |
| | | | | | | | |
| Sindikatu abertzalea / Lore mota | | | | 6. musika nota / A birritan | | | Noizean behin |
| | | | | | Zu / Sarraila irekitzeko | | |
| Gai, materia | Artilea egiten du / Bonu, txar-tel | | | | | | |
| | | | | Arnas ezak hil / Zoro, ergel | | | |
| *Deitura / Neptunioa | | | | | | | |
| | | Ardi hitz-elkarketan / Egiptoko jainkoa | | | | Azken letra / Euskal disketxea | |
| Oinutsik / Katuaren oihua | | | | | | | |
| | | | | Barazki hostotsua | | | |

## BILABILA7





## UMOREGIROAN

**Kike Amonarriz**



**MODESTOREN OSASUNA**

Osasun azterketa egiteko asmoz hurbildu da Modesto herriko anbulatoriora. Medikuak auskultatu eta:

- Ez duzu sasoi makala, Modesto! 75 urterekin zu bezala egotekotan oraintxe bertan sinatuko nuke. Esadazu, zenbat urterekin hil zen zure aita? —galdetu dio medikuak-—.

– Eta nork esan dizu zuri aita hilda dagoenik? —erantzun dio Modestok—.

– Ah! Baina... Oraindik bizi al da edo?

– Bai, noski!

– Eta zenbat urte ditu?

– Aitak? 97. Eta nahiko luke gazte askok eskopeta berak bezain ongi kargatuta edukitzea. Astero egiten du tiro —adierazi dio Modestok maltzurkeriaz—.

– Tira, tira,... eta aitona zenbat urterekin hil zen, bada?

– Eta nork esan dizu aitona hilda dagoenik?

– Bizirik al dago ordea? Eta zenbat urte ditu?

– Aitonak? 118. Eta indarrean oraindik. Egin kontu... datorren astean ezkontzekotan da.

– 118 urte eta oraindik ezkondu egin nahi al du?

– Nahi ez baina... ezkondu egin behar!

**AHOLKUA**

– Zer esaten zion amak Klaudio Landa gazteari, arratsaldero, kalera atera aurretik?

– Gauerdirako oheratu ez bazara..., itzuli etxera!

## SOLUZIOAK

| | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | ● | H | ● | J | ● |
| | | | L | E | P | O | A |
| | | | ● | M | E | N | U |
| ● | G | ● | Z | E | R | ● | Z |
| B | E | G | I | N | I | N | I |
| ● | L | A | B | ● | L | A | ● |
| D | A | L | I | A | ● | H | I |
| ● | ● | I | L | A | G | I | N |
| E | K | A | I | ● | I | T | O |
| ● | U | R | Z | E | L | A | I |
| N | P | ● | A | R | T | ● | Z |
| ● | O | R | T | O | Z | I | K |
| M | I | A | U | ● | A | Z | A |



**Otsailaren 21a: 032 zozketa**

## Harpidedunen txokoa

# Sariak astero!

Astelehenean, otsailak 21, sari hauek izen-abizenak izango dituzte.
*Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun bazara, adi:

**Zeu izan zaitezke sari hauen irabazleetako bat!**

## Otsailaren 21eko sariak




- Bi gonbidapen **FLORIDA-GURIDI** zinemetara joateko eta beste bi gonbidapen Gasteizko San Prudentzio kaleko **BOCATTA**n bi menu jateko (saridun bakoitzari bi emango zaizkio).
- Otsailaren 25erako Elgetako Udalak antolatutako **BERTSO SAIORAKO** (Lizaso, Murua, Unai Agirre eta Estitxu Arozena) lau gonbidapen. Saridun bakoitzari bi. Elgetako Espaloia antzokian.
- Otsailaren 26an Elgetako Espaloia antzokian izango den Arrasateko **BIG BAND** taldearen emanaldirako lau gonbidapen. Saridun bakoitzarendako bi.

Juan Martin Elexpururen
**BERGARA ALDEKO HIZTEGIA**

Leintz-Aramaio, Oñati eta Eibar inguruko berbekin osatuta.

Bi hiztegi, saridun bakoitzarendako bat.




## BALDINTZAK

- *Asteleheneko Goienkaria*-ren harpidedun izatea da baldintza bakarra.
- Irabazleekin gure harpidetza saila jarriko da harremanetan.

**Harpidedun egiteko:**

**902 36 38 51**

Astelehenetik egubakoitzera, 09:00etatik 21:00etara.

**Kuota:**

**Harpidetza kuota, 35 euro**

**2005 osoko** harpidetza kuota.

Asteleheneko **Goienkaria**
astelehenean, **aste bukaera osoa**

**031 zozketa saridunak**

Hauek izan dira aurreko zozketako irabazleak.
**Zure izena zerrendan badago,**
**ZORIONAK!**

**Otsailaren 18an Markeliñe taldearen ‘DECAMERON’ antzerkirako lau gonbidapen. Saridun bakoitzari bina. Elgetako Espaloia antzokian.**
- Xabier Igartua Bengoa (Aretxabaleta)
- Ziorla taberna (Arrasate)

**MOKOGORRI, 6 urtetik gorakoendako bi puzzle (saridun bakoitzarendako bat).**
- Larraitz Iñurrategi Landa (Aretxabaleta)
- Juan Luis Barrutia Mendizabal (Bergara)

**Otsailaren 19an Elgetako Espaloia antzokian egingo den KORRIKA MUSIKALA kontzerturako bi gonbidapen.**
- Unai Ugarte Etxeberria (Bergara)
- Maika Arantzabal Sanchez (Aretxabaleta)
- Angel Arregi San Pedro (Antzuola)

**Eibar-Ejido futbol partidurako lau sarrera; saridun bakoitzari bi.**
- Santiago Aiastui Ugalde (Antzuola)
- Francisco Jesus Izquierdo (Arrasate)
- Ana Fernandez Parra (Arrasate)
- Pedro Mari Zubizarreta Arenaza (Aretxabaleta)



## 'Derbia'

DOMEKA 20 / **19:30**

### Aloña Mendi-Aretxabaleta norgehiagoka Azkoagaindik

Aloña Mendik eta Aretxabaletak derbia jokatuko dute domekan Azkoagainen. Oñatiar eta aretxabaletarrak ez dira denboraldi onik egiten ari, eta bi taldeek dute dezenteko puntu premia. GOITBk diferituan emango du lehia.



## 'Marrazki Bizidunak'

MARTITZENA ETA EGUENA /*** ikus beheko taula**

### Etxeko gaztetxoenendako '03 Patrulla' marrazki bizidunak

Bukatu dira *Animaliakeriak* izeneko marrazki bizidunak, eta datorren astean *03 Patrulla*-k hartuko du lekukoa. Marrazki bizidun horietan ere animaliak ditugu protagonistak. Martitzen eta eguenetan izango dituzue ikusgai.



## 'Debarri'

MARTITZENA 22 / **21:30 eta 23:00**

### Oraingoan, Eskoriatzan egingo du geldiunea 'Debarri' saioak

Alberto Gorritibereak Eskoriatzako kontuen gainean egingo du berba martitzeneko *Debarri* saioan. Betiko moduan, ikusleek aukera izango dute telefono bitartez herri horretako alkateari galderak egiteko.



## 'Auñamendietan'

EGUENA 24 / **21:30 eta 23:00**

### Pirinioetan grabatutako erreportaje saila

Pirinioetan kirol ugari egin daitezke; eskalada, mendi igoera... *Auñamendietan* saioko lantaldeak horiek guztiak egin eta grabatu ditu. Abentura horiek ikusi gura badituzue ez galdu eguenean *Auñamendietan*.

## TELEBERRIAK

### Hauteskundeak EiTBren medioetan

Azken bi asteotan hauteskunde kanpainari jarraipen dezentea egin dio EiTBk medio guztietan. Halaber, domekan hauteskundeen jarraipena ere egingo du, albistegien barruan eta albistegi berezien bitartez. Bestalde, apirilaren 17ra begira, *eitb.com* webguneak web berria abiarazi du, legebiltzarrerako hauteskundeen gainean.

### Telebistek ez zuten errespetuz jokatu

Kataluniako Ikus-entzunezkoen Sailak esan du telebista kateek, orokorrean, ez zutela errespetuz jokatu martxoaren 11ko biktimekin eta haien senideekin. Gaineratu du atentatuen egileen gainean zentratu zuela Espainiako gobernuak medioen interesa.

## ASTEKOPROGRAMAZIOA/ Otsailaren 18tik 24ra

Goitb Goiena Telebista

| EGUBAKOITZA 18 | ZAPATUA 19 | DOMEKA 20 | ASTELEHENA 21 | MARTITZENA 22 | EGUAZTENA 23 | EGUENA 24 |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 13:50 **Marrazki bizidunak:**<br>- Fernando Amezketarra<br>- Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Behazulo**<br>15:15 **Oinak izarretan**<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak**<br>21:00 **Ilunpean:**<br>Julian Iantzi<br>21:30 **Gure lanbide zaharrak**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Ilunpean**<br>23:00 **Gure lanbide zaharrak**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 11:05 **Behazulo**<br>11:35 **Ordubetez:**<br>Eurpar Konstituzioaren gaineko mahaingurua<br>12:45 **Marrazki bizidunak:**<br>- Fernando Amezketarra<br>13:40 **Marrazki bizidunak:**<br>- Lazkao Txiki<br>14:00 **Oinak izarretan**<br>14:30 **Filma:**<br>Don Quijote<br>15:25 **Ilunpean**<br>16:00 **Ordubetez**<br>17:00 **Bi eta bat**<br>17:30 **Klip@**<br>17:45 **Behazulo**<br>18:15 **Mandio:**<br>Arantzazu<br>18:45 **Marrazki bizidunak:**<br>Animaliakeriak<br>19:45 **Emisio amaiera** | 11:00 **Filma:**<br>Don Quijote<br>12:00 **Marrazki bizidunak:**<br>Animaliakeriak<br>13:10 **Marrazki bizidunak:**<br>- Lazkao Txiki<br>13:25 **Ilunpean:**<br>- Julian Iantzi<br>13:55 **Oinak izarretan**<br>14:30 **Gure lanbide zaharrak**<br>15:00 **Filma:**<br>Don Quijote<br>15:50 **Mandio**<br>16:20 **Ordubetez**<br>17:30 **Bi eta bat**<br>17:50 **Marrazki bizidunak:**<br>- Fernando Amezketarra<br>18:45 **Ilunpean**<br>19:15 **Klip@**<br>19:30 **Derbia:**<br>Aloña-UDA<br>21:00 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:**<br>- Fernando Amezketarra<br>- Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Ilunpean**<br>15:15 **Gure lanbide zaharrak**<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:**<br>- Fernando Amezketarra<br>- Lazkao Txiki<br>21:00 **Harmailatik**<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Harmailatik**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:**<br>- 03 Patrulla<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Harmailatik**<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:**<br>- 03 Patrulla<br>21:00 **Debarri:**<br>Eskoriatza<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Debarri:**<br>Eskoriatza<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:**<br>- Fernando Amezketarra<br>- Lazkao Txiki<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Debarri:**<br>Eskoriatza<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak**<br>21:00 **Bi eta bat**<br>21:30 **Danbaka bira:**<br>Lukas Prest<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Bi eta bat**<br>23:00 **Danbaka bira:**<br>Lukas Prest<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** | 13:50 **Marrazki bizidunak:**<br>03 Patrulla<br>14:15 **Berriak**<br>14:45 **Bi eta bat**<br>15:15 **Danbaka bira:**<br>Lukas Prest<br>15:45 **Berriak**<br>16:15 **Klip@**<br><br>19:30 **Emisio hasiera**<br>19:35 **Gaurkoak**<br>19:45 **Klip@**<br>20:00 **Berriak**<br>20:30 **Marrazki bizidunak:**<br>03 Patrulla<br>21:00 **Behazulo**<br>21:30 **Auñamendietan:**<br>Sarrrioaren begirada<br>22:00 **Berriak**<br>22:30 **Behazulo**<br>23:00 **Auñamendietan**<br>23:30 **Gaurkoak**<br>23:45 **Emisio amaiera** |
| 21:00<br>**Ilunpean** | 20:00<br>**Aratusteak** | 19:30<br>**Derbia** | 21:00<br>**Harmailatik** | 21:00<br>**Debarri: Eskoriatza** | 21:30<br>**Danbaka bira** | 21:30<br>**Auñamendietan** |

**GOIENA TELEBISTA /** Posta elektronikoa: **goitb@goiena.com** • Telefonoa: **943 71 23 95**

LASAGABASTER

LASAGABASTER

w w w . l a s a g a b a s t e r . c o m

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

# Mundua hobeto ulertzeko sustraiak



Ikastolaren eta geure kulturaren aldeko konpromisoa hartu dugu, belaunaldi berriek ere gureari eutsiko diotelakoan. Geure sustraietatik abiatuta, mundu zabaleko beste kulturentzako ateak zabalik ditugula.

**matrikulazio epea zabalik: otsailaren 14tik 25era.**

Informa zaitez!
902 11 20 25

www.arizmendi.ikastola.net

Arizmendi ikastola
*geurea, zeurea*

Goienkaria ©
DEBAGOIENEKO ASTEKARIA

**Argitaratzailea:** Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 Arrasate
**Egoitza nagusia:** **BERGARA** 20570 Barrenkalea 33 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta-e: *goienkaria@goiena.com*
**Ordezkaritzak:** **Arrasate** 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta-e: *arrasatepress@goiena.com*
**Aretxabaleta** 20550 Durana 11 • 151 posta-kutxa • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta-e: *aretxagazeta@goiena.com*
**Publizitatea:** **Arrasate** 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 79 21 00 • Faxa: 943 79 22 93 • Posta-e: *publi@goiena.com*
**Lege Gordailua:** NA-3329/2000 • **ISSN:** 1577-1210 • **Tirada:** 18.228 ale • **Difusioa:** 18.185 ale.
**HARPIDETZA:** **943 79 21 00** • Posta-e: *harpidetza@goiena.com*

Goiena Komunikazio Zerbitzuak

OJD erakundeak ikuskatutako astekaria

EGUBAKOITZA, 2005eko otsailaren 18a

## *Atzeskua*

OIHANA ELORTZA

# Jabier Bikuña/ Sagardoa apurtzeko tresna asmatu du

**Zertarako da asmatu duzuen tramankulu hori?** Sagardoa eta txakolina *apurtzeko* balio du.

**Eta nola erabiltzen da?**

Oso erraza da: sagardo botila malgukiaren gainean jarri zutik eta goian estutu; edalontzia oker jartzen da behean, eta azkenik hausporari eman behar zaio. Sagardoa goitik behera dator edalontzira zuzen-zuzen. Hauspoari zenbat eta gehiagotan eman, edalontzia gehiago beteko da.

Sagardoa edateko edalontzi propiorik ez izanez gero, edalontzi txikiendako ere balio du, horretarako prestatuta ere badago-eta.

**Nondik hartu zenuten hori egiteko ideia?**

Antzerako tramankulu bat aspaldi ikusi nuen, baina urrutira. Harrezkero beti izan dut buruan antzerakoa egiteko ideia. Dena dela, hau ez da berdina, osoagoa da.

**Bakarrik egin duzu?**

Ez. Miguel Angel Umerez koinatuak eta biok.

**Erabiltzeko errazak dira, baina egiteko?**

Egiteko ez horrenbeste. Hauspoa bilatzea asko kosta zitzaigun. Berez, sutarako den hauspoa erabiltzeko asmoa genuen, baina gero konturatu ginen ez zigula balio. Azkenean, kirol denda batera joan eta koltxoneta puzgailua erosi genuen. Harekin proba egin genuen eta ikusi genuen huraxe zela behar genuena.

**Asko egin dituzue?**

Bakarren batzuk bai. Guk baserrian dugu bat, eta, gaztainak erretzen ditugunean, handik hartzen dugu sagardoa. Araozko Saloian jarri dugu beste bat, eta asko erabiltzen dute. Okela erretzen dutenean, sagardotegi itxura hartzen du Saloiak.

**Ez duzue negoziorik egin nahi?**

Ez, ez da hori gure asmoa, ez dugu saltzeko intentziorik. Lagunek eskatuz gero bakarrik egiten ditugu, bestela ez.

**Zenbat denbora behar izan duzue lehenengoa egiteko?**

Urtebete inguru. Ideia buruan genuen, baina hori praktikan jartzea, tramankulua erabilgarria izatea kosta egin zitzaigun. Lortu genuenean gustura gelditu ginen.

**Makina bat sagardo botila edango zenituzten probak egiten ere, ezta?**

Bai, horixe. Proba bat baino gehiago egin genituen eta botila asko zabaldu genituen, bai.

**Erloju zaharrak ere konpontzen dituzula esan digute.**

Dezente konpondu ditut, bai. Erloju zaharrak gehienak, urtetan geldi egon direnak, gehienbat Araozko baserrietan dauden aspaldiko erlojuak. Elizako dorrean dagoena ere konpondu nuen.

**Artista zara, beraz.**

Gustatu egiten zait, eta, denbora libre luzea dudanez, azkenean lortu egiten dut.

Tramankulu horrekin ere ordu asko egin ditugu, baina pozik gaude.



**"Erraza da: zenbat eta gehiago eman hauspoari, edalontzia gehiago beteko da"**

**"Araotzeko Saloian jarri dugu bat eta etortzen direnek okela erretzen dutenean, sagardotegi itxura hartzen du Saloiak"**

**"Gure asmoa ez da negozioa egitea, lagunek eskatuta egiten ditugu bakarrik"**

▶ *Oñati / 67 urte / Erretiratua*

## PIPERRAUTSA

### *Nabarmendu*

Erreferenduma tokatzen da domekan, Europako tratatuaz. Eta ez dago oso garbi zer komeni zaigun gehiago: baietza, ezetza edo paso egitea.

Funtsean, Europako Ituna dator dagoena egonkortzera, ez du ate berririk zabaltzen. Estatuek eta alderdi nagusiek adostu dute testua, beraz, ezin espero da iraultzarik. Batek esan lezake bermatu egiten dituela egungo eskubide, askatasun eta babes sozialak, eta horregatik esan behar zaiola baietz. Eta arrazoia izango du bere argudioan. Besteak azpimarra lezake ez duela aitortzen Europan herririk edo kapitalismoa finkatzen duela, eta ezinbestekoa dela ezetza. Eta ez dabil oker. Boto-emaile gehienek, antza, ez dute arrazoi handirik ikusten botoa emateko. Dagoeneko ontzat ematen da % 40ko parte-hartzea.

Egoera honetan, uste dut euskaldunok ahalegin berezia egin behar dugula botoa emateko. Parte-hartze handiak eta Espainiarekiko koskak nabarmendu egingo luke izaki politiko garela, eta aukerak erabiltzen ditugula hori adierazteko. Eta botoa erabakitzeko orduan, nik ezetzera joko nuke, arrazoi berak eraginda. Nabarmenagoa izango da ezetza, hauteskunde biharamunean.

Parte-hartze handia eta ezetza nagusi, Europari esango genioke bagarela eta nahi dugula gure tokia. Ez gaituztela ezabatuko terrorismoaren aitzakiaz. Marcos komandanteak zioen: "Aurpegia estaltzen dugu, ikus gaitzaten".

MIKEL IRIZAR

